

The logo consists of the word "BBVA" in a bold, white, sans-serif font, followed by the word "Research" in a smaller, lighter weight of the same font. A small teal square is positioned to the right of the word "Research".

BBVA Research

Zertan den Euskadi

2018

Espainia eta Portugalgo Unitatea

The background of the entire page is a photograph of a modern, curved glass skyscraper with a distinctive white, ribbed facade. The building is set against a clear blue sky. In the foreground, there is a courtyard area with several young green trees and a paved walkway. The overall aesthetic is clean, modern, and professional.

Creando Oportunidades

Aurkibidea

1. Editoriala	3
2. Euskadiko ekonomiaren perspektibak	5
Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2018ko lehen hiruhilekoa	27
3. Espainiako biztanleriaren lurralde-dinamika: 1950-2016	30
4. Taulak	37
5. Glosarioa	40

Itxiera data: **2018ko maiatzak 16**

1. Editoriala

Euskadiko BPG % 3,1 (u/u) hazi zen 2017an, 2016an baino 0,2 p.p. gehiago (% 2,9 u/u). Espero da jardueraren hazkundeak % 3,1en inguruan jarraituko duela 2018an, eta zertxobait motelduko dela 2019an, % 2,8ren inguruan kokatu arte. Aurreikuspen horiek betetzen badira, 30 mila lanpostu inguru sor ditzake euskal ekonomiak bi urte horietan, eta, batez beste, % 8,8ra murriz daiteke langabezia-tasa.

Euskal ekonomiak 2017an izan zuen jokabidean, dinamismo garrantzitsua erakutsi zuten zenbait osagaik. Kanpoko sektorearen ikuspegitik, esportazioak sektore garrantzitsu guztietan hazi ziren, EBra zuzendutakoak batez ere; turismoak ere oso jokabide positiboa erakutsi zuen, azken sektore horrek pisu txikiagoa badu ere. Ildo horretatik, markak hautsi ziren bai esportatutako ondasunen balio errealean eta bai bisitari eta ostatu-gauen kopuruan. Gainera, barne-eskariaren arloan, suspertzen jarraitu zuen inbertsioak, eta ekipamendu-ondasunen inportazioetara zuzendu zen ahalegina bereziki. Bestalde, higiezin merkatuak ere zantzu positiboak islatu zituen. Azkenik, gastu publikoa indartu zuen Eusko Jaurlaritzak eta, kupoen inguruko akordioak egin ondoren, aldi berean, defizit-helburua bete zuen. Inbertsio publikoaren bultzada ere, trenbide-azpiegiturretakoa, bereziki, lagungarri gertatu zen ikuspegi horretatik. Hala ere, eskualdean Espainian baino apur bat gehixeago moteldu zen kontsumo pribatuaren hazkundera, azken urteotan barne-eskaria sustatu duten faktoreak pixkana ahitu ondoren. Dena den, iazko lehen datuek adieraz zezaketena baino pixka bat gutxiago moteldu zen. Lagungarri izan da hori guztia Euskadin lan-merkatua berrindartzeko, nahiz eta estatuan batez beste baino gutxiago hazi, eta langabezia-tasa txikiagoak erakutsi ditu, halaber, lan merkatuak.

2018. urteaz eskura ditugun datuek diote lehen seihilekoan eskualdeko BPGren hazkundera % 0,8 - % 0,9ra arte (h/h, UEEZ) susper daitekeela, iazko urtearen azken seihileko hazkundera baino gehixeago. Ildo beretik, Euskadiko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak, 2018ko lehen hiruhilekoan, ordu arteko ikuspegiari eutsi zion une horretako hiruhilekoaz, eta espektatiba hobek erakutsi zituen hurrengo hiruhilekoari begira. Kataluniako politikak sortutako ziurgabetasunaren bueltan 2017ko hirugarren hiruhilekoan sumatutako zalantzak gainditu ondoren, industriari, turismoari eta, bereziki, eraikuntzari buruzko adierazleek erakutsi dute inkesta egin zaien ikuspegi positiboa dutela, bai 2018ko lehen hiruhilekoan gertatuaz eta bai urtearen bigarren hiruhilekorako dituzten espektatibez (ikus 1. errekoadroa).

Adierazitako guztia oinarri hartuta, 2018an hazkundeak % 3,1en inguruan jarraituko duela suma daiteke, eta % 2,8ra murriz daiteke 2019an. Hainbat faktorek bultzatzen dezakete aurrerapen hori. Aldeko faktoreen artean, kanpo-ingurunea hobetzeak (Europako hazkundera goranzko joera hartuta berrikustea barne) esportazioak sustatuko ditu, eta produkzioaren esparruko inbertsioa hobetzen lagundu behar du horrek. Inbertsio publikoarekin lotutako perspektibak ere positiboak dira, trenbidearen arloan, bereziki. Gainera, biurteko honetan, diru-politikak hedakorra izaten jarraituko du, eta normalizazio-prozesu motela aurreikus daiteke; interes-tasei behetik eutsiko litzaieke horrela, aurreikuspenaren garaian, gutxienez.

Hala ere, **indarra galduko dute pixkana beste faktore batzuek, eta, horren ondorioz, barne-eskariaren hazkundera aurreko urteetan baino txikiagoa izango da.** Horien artean, krisialdian "pilatutako eskariarekin" lotutako bulkada ahitzen nabarmendu da, bai eta jarduera sustatu zuten aldeko haizeek indarra galtzea ere (jada ez dago interes-tasen beharrik, eta petrolioaren prezioak, batezbesteko historikoen ikuspegitik behera egin arren, goranzko bidea hartu du). Etxeetako kontsumoa moteltzea eragin du horrek. Horrez gain, turismoa (bereziki, Espainian bizi direnei dagokiena) ahultzen has daiteke, Espainiako barne-eskaria moteltzearen ondorioz. Ondorio batzuk nabarmentzen hasi ziren jada 2017an.

Barne-merkatuari dagokionez, Kataluniako tentsio politikoak politika ekonomikoan sortutako ziurgabetasuna areagotzeak eragin txikia izan dezake Euskadin. Katalunian BPG uzkuak gainerako autonomia-erkidegoetan izango lukeen eragina balioetsi du BBVA Research-ek. 2018an, bi hamarren ken diezazkioke BPGren hazkundeari Euskadin, ez baita arrisku horren eragin handiena jasan dezaketen autonomia-erkidegoetako bat. Hala ere, irailetik aurrera ezagutu diren datuek adierazi dute Kataluniako tentsio politikoak, oraingoz, oso eragin mugatua izan duela, nahiz eta horietako batzuk, hala nola inbertsioarekin lotutakoak, oraindik gertatzeke egon daitezkeen.

Euskal ekonomiarako planteatutako agertokia betetzen bada, sei urteko denboraldia bete dezake eskualdeak batez beste % 2,9ko urteko hazkundearekin; 1980tik izandako batez besteko hazkundera baino puntu portzentual bat gorago kokatuko litzake horrela. 2017. urte amaieratik 2019. urte amaierara, 30 mila lanpostu sortzea espero da, eta langabezia-tasa batez beste % 8,8ra murriztea; krisi aurreko garaikoa baino 2,7 p.p. gorago kokatuko litzakete horrela. Hala ere, enpleguaren susperraldia ez da Euskadin berdin gertatzen ari toki guztietan: Donostialdea, Bidasoa Behea, Debabarrena eta Goierri, Gipuzkoan, eta Arabako Lautada lider dira hazkundera, eta, hiriburuen kasuan, krisi aurreko enplegu mailara iritsi dira. Baina Bilbo Handia eta hiri-ingurune handietatik kanpoko udalerriek, datu agregatuetan, dinamismo txikiagoa erakutsi dute.

Inguruneak baditu arriskuak. Kanpoaldeari begira, tentsio geopolitikoak areagotzearekin edota merkatu globalaren susperraldia mugatuko duten neurri protekzionistekin lotuta sortu den ziurgabetasunak bere horretan jarrai dezake, eta Euskadirako garrantzitsuak diren merkatu eta produktuei eragin diezaike horrek. Gainera, **finantzaketa-kostuan gorakada sendo eta ustekabeko bat gertatuko balitz**, negatiboa litzateke euskal ekonomiarako, nahiz eta ekonomia horrek esparru pribatuan duen zorpetze maila estatuko batezbestekoa baino txikiagoa izan. Gainera, **petrolioaren prezioaren** gorakadari jarraipena egin beharko zaio (inflazioa sustatzea eta familiek eskura duten errenta murriztea eragin du horrek), nahiz eta espero den gorakada hori apala izango dela, eta erregaiaren kostuak eskualdeko esportazioen lehiakortasuna arriskuan ez jartzeko moduko mailetan jarraituko duela. Bestalde, beste eskualde batzuekin alderatuta, aurten defizit-helburua betetzeaz gain, Euskadik 2018an egin beharko duen zerga-doikuntza eta ziurgabetasuna txikiagoak dira, kupoei buruzko akordioen ostean.

Langabezia maila minimoetatik gertu kokatu ondoren, areagotu egin dira lan-eskaintzarekin lotuta soldatetan tentsioak sortzeko aukerak, Euskadin azken hamarkadetan biztanleria aktiboa nola murriztu den ikusita, eta kontuan hartuta, biztanleria zahartzearekin, biztanleria aktiboaren hazkunderik ez dela. Ikuspegi horretatik, argitalpen honetako 3. atalean Espainian biztanleriak 1950etik 2016ra zer bilakaera izan duen aztertu da. Aztergai hartutako garai horren lehen erdian, Euskadiko biztanleriak hazkunde garrantzitsua izan zuen, baina bere horretan gelditu da gerora.

Soldata-masaren gorakada sustatzeko, lan-faktorearen batez besteko produktibitatea indartuko duten neurri berriak behar dira, produktibitateak ez baitu izan, konparagarriak diren Europako beste eskualde batzuetan, bereziki eskualde britainiar eta alemaniarretan, izandako **bilakaerarik**. Krisi aurreko BPGren mailak (balio absolutuetan eta biztanleko) gainditu arren, aurreko hedapenaldian lortutako maximoa baino % 7 beheragotik jarraitzen du Euskadin enpleguak. Horregatik, langabezia-tasa, enpleguaren behin-behinekotasuna, epe luzeko langabezia eta lan-merkatuaren ezegonkortasuna murriztuko duten politikekin jarraitu beharra dago. Dena den, ezinbestekoa da, lan-kostuen gorakadarekin batera, produktibitatearen esparruko irabaziak izatea, lehiakortasunari eutsi ahal izateko. Ildo horretatik, laugarren industria-iraultzaren aukerak baliatu behar dira, trantsizio digitala leundu, kostuak arindu eta etekinak sustatuko dituzten politikekin. Horretarako, funtsezkoak izango dira giza kapitala hobetzea, talentua erakartzea, teknologia berriak lehenbailehen geureganatzea eta enpresen batez besteko neurria handitzea, bai eta demografiaren errokarri aurre egitea ere.

2. Euskadiko ekonomiaren perspektibak

Euskadiko ekonomiak bizkortu egin zuen bere hazkunde-erritmoa 2017an, % 3,1era¹ iritsi arte, eta aurreko urtean baino 0,2 p.p. gorago kokatu da, beraz. Hala, suspertzen ari dela erakutsi du 2014tik laugarren urtez segidan, batez beste urtean % 2,9 haziz; 1980ko batezbesteko historikotik puntu portzentual bat baino gorago kokatu da horrela.

Aurrera begira, aurreikusten da BPGk bere hazkunde erritmoari eutsiko diola Euskadin 2018an, eta apur bat murriztuko dela 2019an, % 2,8ra iritsi arte. Horrek, aldi berean, 30 mila enplegu sortzeko aukera ekarriko du bi urteon buruan, eta langabezia-tasa % 8,4ra murriztuko litzateke biurtekoaren amaierarako. Europan eta munduan sumatuko den hazkunde sendoa, petrolioaren prezioaren gorakada neurritsua eta diru-politika hedakorra izango ditu euskarri aurrerapen horrek. Dena den, Euskadiko enplegu maila 2008. urte hasierakoa baino % 7 txikiagoa izango da epe horren amaieran.

INEk 2017rako egindako lehen estimazioaren arabera, aurreikusitakoa baino gehiago hazi zen BPG

Eskualdeko BPGren hazkundeari buruz INEk 2017an egindako lehen estimazioak islatu zuen Euskadiko jarduera % 3,1 igo zela (BBVA Research-ek espero zuena baino 0,4 p.p. gehiago, aurreikuspenak azken aldiz berrikusi ondoren², eta 0,3 p.p. handiagoa, argitalpen honen aurreko zenbakian³, duela urtebete, aurreikusitakoa baino). Susperraldi bizkorrago horren alde jokatu zuten kontsumo pribatua bilakaera auresandakoa baino hobea izateak, gastu publiko handiagoa izanak eta eskualdeko kanpo-merkataritza bizkortu izanak ere. **Eskaintzaren esparruan, 2017an jardueraren hazkundeari egindako ekarpen positibo nagusiak industriari eta zerbitzu pribatuei zegozkien, 1,3 eta 1,1 p.p.-eko ekarpena egin baitzioten hurrenez hurren; horietatik 0,4 p.p. merkataritza, ostalaritza eta garraioen agregatuari zegozkion eta 0,7 p.p.-eko ekarpena egin zuten zerbitzu publikoek.** Aldiz, eraikuntzaren eta nekazaritzaren ekarpenak ez ziren esanguratsuak izan, positiboak izanagatik.

Iaz Espainiako hazkunde erritmo berean hazi arren, Euskadin sektorekako konposizioa desberdina izan zen, protagonismo handiagoa izan baitzuten hazkunde horretan industriak eta zerbitzu publikoek, azken kasu honetan neurri txikiagoan bada ere (hurrenez hurren, ekarpena 6 hamarren eta hamarren bat handiagoa izan zen, Espainian baino). Zehazki, industria-jarduerari dagokio Euskadiko BPGren hazkundearen herena baino gehiago (1,3 p.p. 3,1etik), sektore horren gorakada handiagoaren ondorioz (+% 5,0 u/u, Espainian baino 1,3 p.p. handiagoa) eta gainera pisu handiagoa duelako (% 23, estatuko batezbestekoa baino 10,1 p.p. handiagoa). Gainerako sektoreei dagokienez, hazkundeari ekarpen txikiagoa egin zioten Euskadin. Horixe da merkataritza, ostalaritza eta garraioaren agregatuaren kasua, 0,4 p.p.-eko ekarpena egin baitzuten hazkundeari, edota eraikuntzarena, nahiko geldirik iraun baitzuen eskualdean; horietako bakoitzak Espainian baino 0,3 p.p. ekarpen txikiagoa egin zuten (ikus 2.1 grafikoa).

Iazko urtearen bigarren erdian Euskadiko industria-produkzioak izandako bizkortzeak azalduko luke hori, industria-produkzioaren indizeari dagokionez, % 4,4ko gorakadarekin itxi baitzuen urtea, tarteko ondasunen sektoreak eta


1: 2018ko martxoaren 23an, autonomia-erkidegoek 2017an izandako hazkundeari buruzko lehen estimazioa argitaratu zuen INEk. Emaizak aztertu nahi badira, ikusi: <https://www.bbva.com/publicaciones/espaa-crecimiento-del-pib-regional-1a-estimacion-de-la-contabilidad-regional-de-2017/>

2: Ikusi *Observatorio Regional*, 1H18: <https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2018/02/Observatorio-Regional-1H18.pdf>

3: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-pais-vasco-2017/>

ekipamendu-ondasunenak⁴ izandako bilakaeraren ondorioz (% 5,3ko eta % 4,7ko hazkundeak). Azken horien artean, deformazioaren eta osagarrien azpisektoreak nabarmendu ziren, bi digituko hazkundeak izan baitzituzten bi kasuetan⁵. Bestalde, zerbitzuen sektoreko jarduera-indizearen kasuan (ZSJI), gorabeherak nabarmendu ziren hazkunderan, urtean batez beste % 4,5 hazi arren, erorikoak izan baitzituen hiruhilekoen artean, urteko lehenean eta hirugarrengoan hain zuzen.

2.1 grafikoa BPGren hazkundera 2017an, eta sektoreen ekarpenak (% u/u eta p.p.)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Jarduera eta espektatibei buruzko datuek diote BPGren hazkundeak bizkor jarraitzen duela Euskadin, 2018. urtearen hasieran: MICA-BBVA⁶ ereduaren arabera, BPG % 0,8-0,9 (h/h) haz daiteke Euskadin batez beste aurtengo lehen sei hilekoan, eta 2017ko azken sei hilekoan batez beste sumatutakoa baino zifra handiagoa da hori; gainera, aurtengo urterako aurreikusitako hazkunderarena (% 3,1) gaitutuko luke erritmo horrek (ikusi 2.2 grafikoa).

Urte hasieran espektatibak indartu egin dira berriro, eta horrekin koherentea da aurrerakada. 2017ko hirugarren hiruhilekoan ekonomiari buruzko konfiantzaren jaitziera eta Kataluniarekin lotuta sortutako ziurgabetasun garaia ez ziren nabarmen islatu urtearen azken hiruhileko jardueran. Euskadiko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan, 2018ko lehen hiruhilekoan hurrengo hiruhilekorako espektatibek gaitutuko egiten dituzte 2017an adierazitakoak, eta % 40ko saldo garbira hurbiltzen dira; hiruhileko honetako ikuspegiari dagokionez, berriz, 2017ko 4. hiruhilekoan erakusten zuenaren antzeko mailari eusten dio (ikusi 2.3 grafikoa).


4: 2015. urtea oinarri hartuta INEk zehaztutako Industria Produkzioaren Indizearen arabera, tarteko ondasunen eta ekipamendu-ondasunen haztapenak % 44,2koa eta % 32,1ekoa izan dira, hurrenez hurren; tarteko ondasunetan, Espainiako autonomia-erkidegoetako handiena, eta, ekipamendu-ondasunetan, bigarren handiena, Nafarroa baita lehena.

5: Ikusi honetaz: http://www.eleconomista.es/pais_vasco/noticias/8901093/01/18/El-sector-de-Maquina-Herramienta-vasco-crece-con-fuerza-hasta-los-1576-millones.html

6: Ikusi MICA-BBVA: A Factor Model of Economic and Financial Indicators for Short-term GDP Forecasting disponible aquí:


<https://www.bbva.com/en/publicaciones/mica-bbva-a-factor-model-of-economic-and-financial-indicators-for-short-term-gdp-forecasting/>

2.2 grafikoa BPGren hazkundera, MICA-BBVA ereduaren arabera (h/h, %, UEEZ)



(e) Aurreikuspen edo estimazioa.
Iturria: BBVA Research

2.3 grafikoa Euskadi: jarduera eta perspektibak, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (% muturreko erantzunen saldoa)



Iturria: BBVA

Euskadin, kontsumo pribatuak moteldu egin zuen bere hazkundera 2017an


2017an, euskal familien kontsumo-gastuak hazten jarraitu zuen, aldeko zenbait arrazoi tarteko. Besteak beste, nahiko behetik jarraitu zuen petrolioaren prezioak⁷, historikoki baxuak diren interes-tasei eutsi zitzaizen, eta familien errenta sustatu zen, enpleguaren gorakadari esker. Alta, hazkunde hori moteldu egin zen urte arteko datuei erreparatuta. Baina iazko lehen hiruhileko ahuleziaren ondoren, espero izatekoa zena baino txikiagoa izan zen azken finean motelaldia, hein batean gainditu egin baizen ahulezia hori hurrengo hiruhilekoetan.

Barne-kontsumoa % 2,1 hazi zen iazko urtean, 2016an baino lau hamarren gutxiago (estatuan batez beste izandakoa baino hiru hamarren gutxiago); bilakaera apur bat hobea izan zuen urtearen bigarren erdian (ikusi 2.4 grafikoa), auto pribatuen matrikulazioan hautemandakoaren ildotik; urteko azken hiruhilekoan, adierazle partzialak hobetu egin ziren gainera, hiruhileroko datuei erreparatuta.

2018az eskuragarri dauden datuei jarraiki, Euskadiko familien kontsumoak –eskualdeko kontsumo-adierazle sintetikoaren bidez (ISCR-BBVA) neurtzen da– moteldu egin du bere hazkundera lehen hiruhilekoan, iaz urtearen bigarren erdian izandako jokabidearekin alderatuta. Ildo horretatik jo dute bai matrikulazioek eta bai kontsumo-ondasun eta manuakturen inportazioek (ikusi 2.5 grafikoa).


7: EAEko etxeek beren gastutik zati txikiagoa eskaintzen diote garraioari Espainian batez beste baino. Dena den, oso antzekoa da eskualdeko ekonomiak petrolioaren aurrean duen sentiberatasuna. Ikusi BBVA Research, *Observatorio Regional 1H17*, [hemen](#).

2.4 grafikoa Eskualdeko kontsumo-adierazle sintetikoa, ISCR (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.5 grafikoa Kontsumo pribatuaren adierazle nagusien hazkunde eta aurreikuspenak (% h/h, UEEZ)




(e) Estimazioa, eskura dugun azken informazioaren arabera.
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

EAEko kontsumo-gastuaren eta EAEko inbertsioaren hedapena 2017an

Eusko Jaurlaritza bere diru-sarreraren dinamismoaz baliatu zen azken kontsumo nominalean gastua sustatzeko berriro, eta, horrela, % 2,8ko gorakada izan zuen 2017an, bere zerga-politikaren joera hedakorri eutsita. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzaren inbertsioak egonkor jarraitu zuen aurreko urtearekin alderatuta, 2016an halako susperraldi bat izan ondoren. Alde nabarmena erakusten du horrek autonomia-erkidegoen multzoan izandakoarekin, % 9 hazi baitzen u/u (ikusi 2.6 eta 2.7 grafikoa).

Aurrekontu gauzatzeaz eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera, dinamika horiei eusten ariko litzateke Jaurlaritza: kontsumo-gastuan, dinamika hedakorra nabarmendu da 2018ko lehen hilabeteetan ere, eta dinamika egonkorragoa, berriz, inbertsioetan.

2.6 grafikoa Autonomia-erkidegoak eta Eusko Jaurlaritza: azken kontsumo nominalari dagokion gastua* (% , u/u)




* Azken kontsumo nominalerako gastuari dagokion hurbilketa, kapital finkoaren kontsumoa kanpoan utzita.

(a) Aurrerapena.

Iturria: BBVA Research, MINHAFPen oinarrituta

2.7 grafikoa Autonomia-erkidegoak eta Eusko Jaurlaritza: kapital nominalaren eraketa gordina (% , u/u)



(a) Aurrerapena.

Iturria: BBVA Research, MINHAFPen oinarrituta

laz lizitazioak izandako jokabide onak, ildo beretik jarraitu du 2018ko lehen hilabeteetan

Euskadin, batez beste Espainian baino gehiago hazi zen obra publikoen lizitazioa 2017an. laz, eskualdean lizitatutako zenbatekoa 2016koa baino nabarmen handiagoa izan zen, % 75,1 handiagoa, eta Espainian erregistratutakoaren 37,8 p.p. gaineratik (ikus 2.8 grafikoa). **Datuak obra motaren arabera bereiziz, obra zibilak bizitegi-izaerako eraikuntzak baino jokabide hobea izan zuen:** 2017an lizitatutako kopuru osoaren % 75,3 izan zen obra zibilera zuzendua. Zehazki, urte arteko tasan, % 98,6ra handitu zen obra zibila (% 37,4ra estatuan). Bestalde, eraikuntzaren atalak % 28,7ko aurrerapena erakutsi zuen 2016koarekiko, Espainian batez beste izandako gorakadaren %38,5ekoaren azpitik nolana. Baliabide berrien zatirik handiena, eskualdean, trenbidea eraiki eta zaharberritzera zuzendu zen (urtean iragarritako lizitazioaren % 41), abiadura handiko "euskal Y"-aren Bergarako lotuneko zatiak barnean hartuta. Gainerako kontu-sail nagusiak urbanizazio-obrei, obra hidraulikoei eta errepede-sarean egindakoei egokitu zitzaizkien. Eraikuntzan, kontu-sail nagusiak kirol-instalazioetako eta etxebizitzetako obretara zuzendu ziren.

BPGrekin alderatuta, Euskadin iragarritako lizitazioak estatuko batezbestekoaren gaineratik eutsi zion, eta eskualdeko BPGren % 2,6ra iritsi zen (Espainiako batezbestekoa % 1,2koa izan zen); aurreko urtean baino 1,2 p.p. gorago kokatuz. Hala, lizitazioa eta BPGren arteko ratioak gairatu egin zuen, bederatzigarren urtez segidan, estatuko batezbestekoa (2009tik, Espainiako batezbestekoarekiko diferentziaziala PBGren 1,0 p.p.-ekoa izan da).


Lurraldeka, lizitazioak hazkunde garrantzitsua izan zuen Gipuzkoan 2017an (% 232,5). Hala, lurralde historiko horrek eskualdean lizitatutako obraren % 58,8 bildu zuen. Bizkaian, apalxeagoa izan zen hazkundera (% 16,2). Araban, berriz, % 23,5 murriztu zen lizitazioa, eta, iaizko urtean, Euskadiko lizitazioaren % 8,9 burutu zen bertan.

2018. urte hasierako datuak positiboak izan dira Euskadin eta, urteko lehen bi hilabeteetan, Espainian batez beste izandako hazkundera gairatu du: % 91,1 hazi zen lizitazioa urte artean eta % 79,5, berriz, Espainian. Obra zibilak aurreko urtearekiko izandako % 99,1eko hazkundera nabarmendu da; aurrerapen

garrantzitsua izan da, baina hilabete horietan estatuan osotara erregistratutako hazkundearen (% 120,8) azpitik kokatu da. Eraikuntzan, lizitazioa % 50,4 hazi da eta, beraz, bikoiztu baino gehiago egin du estatuko batezbestekoa (% 23,8 u/u). Lurralde historikoei dagokienez, lizitazioa nabarmen hazi da Gipuzkoan eta Araban 2018ko urtarrilean eta otsailean, iazko epe horrekin alderatuta (% 350,3 eta % 286,7 hurrenez hurren); aldiz, Bizkaian, % 41,2 txikiagoa izan da.


Erakunde finantzataleei erreparatuta, 2017ko lizitazioaren gorakada estatuari zor zaio bereziki, eskualdera bideratutako zenbatekoa % 207,2 hazi baitzen 2016koarekiko. Bestalde, lurralde-erakundeak jatorri zuen finantzaketa % 42,1 hazi zen urte arteko datuetan, eta eurena da oraindik obra publikoari egin ekarpen handiena. 2017ko obra publikoaren lizitazioan % 35,1era arte hazi zen estatuaren pisua, 2004tik erregistratutako batez bestekoa baino 20 p.p. gorago.

2.8 grafikoa. Obra publikoa obra motaren arabera: 2017ko urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (puntu portzentualak)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.9 grafikoa. Euskadi: lizitazioaren esparruko aurrekontua lurralde historikoetan, 2017an (milioi € eta % u/u)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

Euskadin, produkzioaren esparruko inbertsioaren gorakada ekipamendu-ondasunen inportazioari lotu zaio batik bat


Inbertsioa hazi egin zen Euskadin 2017an. Alde batetik, ekipamendu-ondasunen inportazioek hazten jarraitu zuten, laugarren urtez segidan (+% 5,5 u/u, estatuan batez beste baino 3 p.p. gutxiago; ikusi 2.10 grafikoa), eta marka hautsi zuten berriro, 4 mila milioi eurora iritsi baitziren (eskualdeko BPGren % 5,5). Eskualdeko inportazio guztien bostena baino gehiago zegokien, iaz, ekipamendu-ondasunen inportazioei.

Bestalde, bizitegiz besterako eraikuntza % 8,1 murriztu zen Euskadin 2017an, bigarren urtez segidan, 2015ean indartsu hazi ostean, eta nahiz estatuan batez beste % 13,0 hazi. Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, 176 mila metro koadro bisatu ziren osotara eskualdean, krisi aurreko urtean bisatutakoen bostena baino gutxiago. Eraikin motei dagokienez, herena industria-erabilerara zuzendu zen; beste herena merkataritza eta biltegi-erabilerarako bisatuei eta turismo eta aisialdikoei egokitu zitzaizkien, ia neurri berean, nahiz eta aurreko urtearekiko murriztu. Bulegoetara zuzendutakoak soilik hazi ziren, baina bisatutako azalera osoaren hamarrena baino ez zuten osatu horiek.


2018ko lehen bi hilabeteetako datuek erakutsi dutenez, bizitegiz besterako eraikuntzak **behera egin du berriro** Euskadin. Urtarrilean eta otsailean, bizitegiz besterako eraikinen azalera bisatua % 51,8 murriztu zen urte arteko datuetan (estatuan, batez beste, % 6,2 egin zuen atzera). Erabileren tipologiari dagokionez, industriara eta merkataritza zuzendutako azaleren hazkundeak ez ziren aski izan nekazaritzarako murrizketa eta, bereziki, zerbitzuetakoa orekatzeko, murrizketa horiexei zor baitzaie, nagusiki, eskualdean bizitegiz besterako eraikuntzak izandako gainbehera.

Ikuspegi kualitatiboago batetik begirata, 2018ko lehen hiruhilekoaz Euskadiko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek argi erakutsi dute inbertsioak sektore bakoitzean berezko ezaugarriak dituela: alde batetik, eraikuntza berriaren sektoreak areagotu egin du erantzunen saldo garbia, eta inkesta egin zaien % 40 baino gehiagokoa izan da. Bestalde, industria-sektoreko eta zerbitzuetako inbertsioei buruzko erantzunak positiboak izan dira, eta egonkor samar jarraitu dute, seigarren hiruhilekoz segidan; baina % 20ko saldo garbia baino apur bat beheraxeago kokatu dira. Azkenik, lehen sektoreko inbertsioak erantzun negatiboko saldoekin jarraitu du (ikusi 2.11 grafikoa eta 1. errekoadroa).

2.10 grafikoa Bizitegiz besterako eraikuntzako bisatuen hazkundea (m²) eta ekipamendu-ondasunen inportazioak (% u/u)



2.11 grafikoa Inbertsioaren bilakaera sektorez sektore, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (erantzunen saldoak, %)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan eta Datacomex-en oinarrituta

Iturria: BBVA

Bilakaera positiboa higiezinaren merkatuan

2017an, etxebizitzaren salmentak joera positiboa erakutsi zuen berriro: Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, aurreko ekitaldian 20.891 etxebizitza saldu ziren Euskadin, aurreko urtean baino % 11,5 gehiago. Hala ere, hazkunde hori Espainiako batezbestekoa (% 16,3) baino apur bat txikiagoa izan da. Hiruhilekoko dinamikak % 2,0ko (h/h, UEEZ) hazkundea islatu du batez beste, eta lehen hiruhilekoan izandako joera nabarmendu da bereziki, urtearen erdialdean apur bat moteldu arren; dena den, berriro suspertu zen 2017ko azken hiruhilekoan (+% 3,7 h/h, UEEZ, ikusi 2.12 grafikoa).

Euskadin, etxebizitzaren eskariaren osaketa hagitx desberdina sumatzen da, estatuko batezbestekoarekiko, lehen bizitexeak pisu handiagoa baitu. 2017an, saldutako etxebizitzaren % 92,4 probintziako egoiliarrek erosi zituzten, eta, Espainian, % 70 baino zertxobait gutxiago dagokio atal horri, batez beste. Etxebizitza kokatzen den probintziatik kanpoko egoiliarrek egindako erosketek kopuru osoaren % 4,0 baino ez dagokie, eta, batez beste, % 13,4 dagokio esparru horri estatuan. Bestalde, atzeritarren eragiketak kopuru osoaren % 3,4 soilik izan ziren iazko urtean.

2017an, eskariaren barneko segmentu guztiak hazi ziren Euskadin. Salerositako etxebizitza kokatzen den probintzian, erosle egoiliarren eragiketak % 10,7 hazi ziren urte artean, eta, euskal merkatuan esparru horrek duen pisua ikusita, eskualdeko salmenten hazkundera 10,0 p.p. dagozkio eremu horri. Bestalde, hazkunde handiena erosle atzerritarren artean sumatu zen: +% 30,3, aurreko urtekoarekin alderatuta. Dena den, merkatuan eragin mugatua izan zuen, eskari osoaren barnean ez baitu pisu handirik atal horrek: eskualdeko salmenten hazkundera, 0,9 p.p. dagozkio soilik. Azkenik, salerositako etxebizitza kokatzen den probintziaz kanpoko egoiliarren kasuan, hazkundea % 16,2koa izan zen 2016koarekiko, eta iazko urteko salmenten hazkundera 0,6 p.p. dagozkio.


Etxebizitzen salmenta hazi egin zen iaz hiru lurraldeetan. Bigarren urtez segidan, salmentek Araban izan zuten dinamismo handiena (% 24,1). Beraz, 2013an minimora iritsi zirenetik 2017ra bitartean, salmentek % 81,5 egin dute gora. Iazko urtean hazkunde txikixeagoa izan bazen ere, salerosketek susperraldi handiagoa izan dute minimoetatik abiatu zirenetik Gipuzkoan eta Bizkaian: % 91,4 eta % 100,7, hurrenez hurren.

Etxebizitzaren prezioa handitu egin zen Euskadin 2009tik lehen aldiz, nahiz eta Espainiako batez bestekoaren azpitik geratu gorakada hori. Sustapen Ministerioak bildutako tasazio-balioen arabera, etxebizitzaren prezioa % 0,7 hazi zen eskualdean, Espainiako %2,4ko batez besteko hazkunderaren azpitik. Hortaz, etxebizitzaren prezioa 2016ko laugarren hiruhilekoan iritsi zen minimora Euskadin; estatuan, oro har, minimora 2014ko hirugarren hiruhilekoan iritsi eta, orduetik, % 7,1 suspertu da. Lurraldekako ikuspegitik, hiruretan hazi zen etxebizitzaren prezioa 2017an; hazkunde handiena Gipuzkoan izan zuen, eta txikiena, berriz, Bizkaian.


Udalerriei dagokienez, 25.000 biztanletik gorakoen artean, prezioek ez dute jokabide bera izan: prezioen gorakada nabarmenena Donostian erregistratu da, 2015ean minimora iritsi zirenetik % 9,4ko igoera metatua izan baitute. Leioan eta Getxon, prezioen gainbeherak 2016ra arte jarraitu zuen, baina gorakada indartsua izan zuten iaz, % 6,7koa eta % 5,5ekoa, hurrenez hurren. Bestalde, prezioen gorakada neurritsuagoa izan da Gasteizen, % 2,1ekoa zehazki, nahiz eta hondoa 2014koan jo; eta autonomia-erkidegoko udalerrri handiengan, **Bilbon, ez da joera argirik sumatu:** 2016an gora egin zuten prezioek, baina % 1,9 murriztu ziren iaz.

Sinatutako etxebizitza berrien bisatuek batez beste Espainian izandako bilakaeraren antzekoa izan zuten 2017an. 2016an behera egin ondoren (-% 13,6), % 26,7 hazi ziren iaz, eta 5.172 baimen onartu ziren. Eskualdeko eraikuntza-jarduera estatuko batezbestekoaren antzekoa izan zen, estatuan % 26,2 egin baitzuten gora sinatutako bisatuek. Hiruhilekoka aztertuta, urtean bilakaera aldakorra izan da eta hirugarrengoa izandako hazkunde nabarmendu da (ikus 2.13 grafikoa). Hobera egin zuten hiru lurraldeek esparru horretan, baina Araba nabarmendu zen bereziki: bisatuen sinadura bikoiztu egin zen ia 2017an 2016koarekiko; ondoren Gipuzkoa eta Bizkaian handitu ziren gutxien; hala ere, Euskadiko bisatuen % 51,1 onartu ziren lurralde horretan (ikus 2.1 koadroa).

Aurtengo lehen bi hilabeteetan, Euskadin ez zaio eutsi 2017ko hazkunde-joerari. 652 baimen sinatu dira etxebizitza berriei ekiteko, aurreko urtean epe horretan baino % 32,5 gutxiago. Hori ez dator bat Espainian batez beste atal horrek izandako hazkunderarekin: % 17,4. Probintzien artean, gainbehera handiena Araban gertatu da (-% 86). Bizkaian, % 32,9 egin du behera, eta, Gipuzkoan, berriz, % 6,8.

2.12 grafikoa Euskadi: etxebizitzien salmenta (UEEZ)


Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.13 grafikoa Euskadi: etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuak (UEEZ)


Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.1 Koadroa Euskadi eta Espainia: higiezinaren merkaturako aldagaiak probintzien arabera (% u/u)

	Etxebizitza salmentak				Etxebizitzien prezioa		Etxebizitza berrien bisatuak			
	2016		2017		2016	2017	2016		2017	
	Etxebizitzak	% u/u	Etxebizitzak	% u/u	% u/u	% u/u	Etxebizitzak	% u/u	Etxebizitzak	% u/u
Álava-Araba	2.406	26,6	2.986	24,1	-3,7	1,0	268	-44,3	526	96,3
Gipuzkoa	6.140	11,8	6.961	13,4	-2,3	1,8	1.283	-48,1	2.003	56,1
Bizkaia	10.184	11,0	10.944	7,5	-1,0	0,2	2.532	43,8	2.643	4,4
Euskadi	18.730	13,0	20.891	11,5	-1,6	0,7	4.083	-13,4	5.172	26,7
Espainia	457.738	13,9	532.367	16,3	1,9	2,4	64.038	28,9	80.786	26,2

Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Esportazioetan marka hautsi zen 2017an, sektore nagusietan gora eginda


Euskadin, ondasunen esportazioak Espainian adina suspertu ziren 2017, % 8,2 u/u termino errealetan, 2016an % 1,7 hazi ondoren (ikusi 2.14 grafikoa). Eskualdeak kanpoan egindako salmentek errekor historikoa lortu zuten, 23,9 mila milioi eurora iritsi baitziren; eskualdeko BPGren % 33,3 adierazten du zifra horrek, Espainiako batezbestekoa baino 9,5 p.p. handiagoa. Zenbateko horren herena baino gehiago (% 36,4) ekipamendu-ondasunen atalari zegokion; laurdena erdi-manufakturak izan ziren (% 25,7); automobilgintzak, berriz, bosten bat osatu zuen eta sektore energetikoak hamarren bat (% 20,1 eta % 9,3 hurrenez hurren).

Euskaditik atzerrira egindako salmentak produktu multzo guztietan hazi ziren, eta ekipamendu-ondasunak nabarmendu ziren bereziki: 4,5 p.p.-eko ekarpena egin zion esportazioen hazkundeari sektore horrek, % 12,7 hazi baitziren, bi urtetan apur bat murriztu ondoren. Beste horrenbeste gertatu zen erdi-manufaktoretan; izan ere, berriro hazi arren (+% 7,3 u/u, 1,9 p.p.-eko ekarpena hazkundeari), pisua galtzen joan dira Euskadiko esportazioen barnean hamarkada batean, egungo minimoetan kokatu arte (zenbateko osoaren % 25,7 dira oraindik). Joera horrek automobilgintzaren sektorean aurkitu du kontrapisua: gora egin du esportazioetan seigarren urtez segidan (+% 8,7 u/u ia), eta 1,8 p.p.-eko ekarpena egin dio esportazioen hazkundeari. Azkenik, nabarmen hazi ziren esportazio energetikoak, % 25,7, 2,1 p.p.-eko ekarpena eginez (ikusi 2.15 grafikoa), nahiz eta urte hasieran URFn

(Unidad de Reducción de Fueloil)⁸ geldialdi teknikoak izan. Den den, izan zuen horrek kontrapisurik balantza komertzialean: inportazio energetikoak hazi egin ziren (+% 53,3 u/u), saldo komertzial energetikoak okerrera egitea eraginez. Produktuei dagokienez, zenbait industriatako makina espezifikoak nabarmendu ziren ekipamendu-ondasunetan, bereziki, metala lantzeko erabiltzen direnak, bai eta industrian erabilera orokorra duten beste batzuk ere. Garraio-materialari dagokionez, salgaien garraiora zuzendutakoa nabarmendu zen bolumenagatik, baina baita trenbideetako materiala ere, izandako hazkundeagatik: aireontzien esparruko salmenten bolumena laukoiztu egin du ia. Erdi-manufakturretan, burdina eta altzairua ez ezik, pneumatikoak eta ganberak izan dira nagusi. Bestalde, automobilgintzaren sektoreko salmenten % 55 ibilgailutan egin ziren, eta % 45, berriz, osagaietan.


2018ko lehen bi hilabeteetako datuek adierazten dute esportazioen dinamismoa bizkortu egin dela lehen hiruhilekoan; ekarpen handiagoak dagozkie ekipamendu-ondasunei eta automobilgintzari, bai eta sektore energetikoari ere, hazkundearen laurdenaren atzean azken horixe bailegoke. Erdi-manufakturak, berriz, hazi egin dira, baina iaz baino motelago.

2.14 grafikoa Euskadi eta Espainia: esportazio errealak (1H13=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta. 1H18ko datuak otsailera arteko informazioaren arabera kalkulatu dira.

2.15 grafikoa Euskadi: esportazioak eta sektoreen ekarpenak* (% u/u, p.p.)



* 1H18 datuak otsailera arteko informazioaren arabera kalkulatu dira. Aldi horretako tasak eta kontribuzioak, 1H17koarekiko. Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Euskadiko esportazioen sektoreak EBra egindako salmenten gorakadak azalduko luke hazkunde nominalaren zatirik handiena, 10,4 p.p.-etatik 7,0: horietatik, 4,2 p.p. euroguneko kideei dagozkie (+% 8,1 u/u, eta salmenta guztien % 51ren helmuga), eta gainerakoa, gune horretatik kanpoko herrialdeei (+% 15,1 u/u, eta % 19). Amerikako merkatuetara egindako salmenten dinamismoaren eraginez (bai Ipar Amerikara eta bai Latinoamerikara zuzenduak, +% 18,6 u/u eta +% 26,0 u/u hazi baitziren hurrenez hurren), Asiaren mailara hurbildu ziren biak, helmugako herrialdeen garrantziari begiratuta, azken honek Euskadiko ondasunen merkatu gisa hazkunde apalagoa izan baitzuen (+% 4% u/u). 2017an, euskal esportazioen % 8,7 lotu zuen Asiak; Ipar Amerikara eta Latinoamerikara, berriz, % 8,3 eta % 7,7 zuzendu ziren, hurrenez hurren.


Erresuma Batuak Euskadiko ondasunen erosketari gehiago egin zituen iaz sektore garrantzitsuenetan: ekipamendu-ondasunetan (+% 30,8 u/u), erdi-manufakturretan (+% 8,6 u/u) eta automobilgintzan (+% 5,1 u/u); osotara, herrialde horri egindako salmenten % 88,9 dagozkie (ikus 2.16 grafikoa). Liberaren balio-galera gertatu arren, ekipamendu ondasunen salmentak (guztien herena baino gehiago) igo egin ziren, bai industria zehatz batzuetara zuzendutako makina berezietan eta bai garraio-ibilgailuetan, salgaien garraiorako

8: <http://petronor.eus/eu/2016/12/petronorrek-urf-ko-lehenengo-etenaldia-egingo-du-49-milioi-euroko-aurrekontuaz/>

ibilgailuetan, bereziki. Erdi-manufakturen artean, burdina eta altzairua nabarmendu ziren, eraikuntza-materialaz eta pneumatiko eta ganberez gain. Bestalde, automobilgintzaren sektorean (salmenten laurdena ia), osagaien gorakadak orekatu zuen ibilgailuetan izandako beherakada, autoen merkatu britainiarra iaz 2011tik lehen aldiz uzurtu ondoren. Testuinguru horretan, eskualdeko esportazioen % 6,3 Erresuma Batura zuzendu ziren iazko urtean (1.512 milioi €).


Bestalde, ondasun errealeen inportazioa bizkortu egin zen iaz, 2016an apur bat behera egin ondoren: % 13,5 hazi zen u/u, Espainian baino 7,9 p.p. gehiago (ikusi 2.17 grafikoa). Hazkunde hori %19,9koa izan zen nominalki eta horren erdia baino gehiago inportazio energetikoen gorakadari dagokio (+% 53,3), inportazioen % 21 adierazi baitzuten. Beste zati garrantzitsu bat erdi-manufakturen inportazioen suspertzeari (+% 15,9, inportazioen % 27), ekipamendu-ondasunetan izandakoari (+% 5,8 u/u), eta automobilgintzari zor zaie (+% 9,7 u/u). Hala, eskualdeko ondasunetako superabit komertziala % 13,1 murriztu zen, 5,3 mila milioi eurora iritsi arte; 2016an, berriz, 6,1 mila milioikoa izan zen. Eskualdeko BPGri dagokionez, % 7,4ren inguruan kokatu zen saldo komertziala, 2016an lotutako % 8,5ekoa baino puntu bat beherago.

2.16 grafikoa Euskadi: Erresuma Batura zuzendutako esportazioak, sektorez sektore (milioi euro €)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

2.17 grafikoa Euskadi: inportazio errealak* (1H13=100, UEEZ)



* 1H18ko datuak otsailera arteko informazioaren arabera kalkulatu dira. Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Euskadik bidaiarien eta ostatu-gauen markak hautsita itxi zuen 2017. urtea, eta ondoz ondoko lau urteko hazkundea esan nahi du horrek

2017an, Euskadira etorritako bidaiarien eta ostatu-gauen kopuruak 3 milioi eta 5,8 milioi ingurukoak izan ziren, hurrenez hurren; beraz, % 5,6ko eta % 7,4ko hazkundeak izan dituzte adierazleok. Iaz, bai espainiarrei dagokien zatiak, eskualdeko turismoaren barnean hamar bidaiaritatik sei hartzen dituenak, bai atzerritarrei dagokienak, hazkunde handiagoa izan zuten ostatu-gauei dagokienean (% 6,5 vs % 9,5, hurrenez hurren) bidaiarietan baino (% 4,1 espainiarren kasuan, eta % 8,8 atzerritarren kasuan). Espainiarrek eskuragarri duten errenta handitzea eta konfiantza sendotzea, nahiz garraio-kostu nahiko merkeak, izan dira susperraldi horren euskarri nagusiak. 2018. urteari buruz eskuragarri ditugun lehen datuen arabera (urtarokotasuna zuzenduta, UEEZ), eskualdeko turismoaren hazkunde-erritmoari eutsi zaio: % 1,5eko (h/h) hazkundea izan dute bidaiarien kopuruak nahiz ostatu-gauek (ikusi 2.17 grafikoa). Martxora arte, espainiarrei dagokien turismoaren atalak hazkunde handixeagoa izan zuen.

Kopuruen hazkunde hori bat etorri zen Euskadiko hotelen prezio-igoerarekin (% 2,6 u/u), ia izandako igoera baino motelagoa izan arren. Kantauri aldeko gainerako erkidegoetan baino handiagoa izan zen igoera (ikus 2.19 grafikoa), baina Espainiako batezbestekoaren azpitik gelditu zen. Dena den, krisi aurreko mailaren azpitik (% 7) daude prezioak oraindik, saturazio-egoeratik urrun, herrialdeko beste inguru turistikoago batzuetan ez bezala. Gainera, ostatuen eskaintzak ere gora egin du: alde horretatik, azken bost urteetan, ostatuen kopurua⁹ % 6,3 handitu da Euskadin, baina aldeak daude lurralde historiko batetik bestera, eta eskaintza turistiko desberdinak egiten direla adieraz dezake: Araban, establezimenduen kopurua % 4,4 murriztu da; Bizkaian, ia berdin eutsi dio (% 1,0); Gipuzkoan, aldiz, establezimendu irekien % 47 zegoen lehen eta, Eustaten datuen arabera¹⁰, % 14,2ko hazkundea gertatu da, nagusiki hiriburuan bertan, Donostian (+% 27,4). Beraz, Gipuzkoak eskaintza handitu du, oro har, txikiagoak diren establezimendu gehiagorekin.


Eskaintako tokien kopuru osoaren bilakaera aldatu egiten da lurralde historiko batetik bestera, baina hiriburuetan kontzentratzeko joera du. Alde batetik, Gipuzkoan eta Bizkaian gora egin du tokien kopuruak (% 5,5 eta % 3,1, hurrenez hurren); aldiz, Araban behera egin du eskaintako tokien kopuruak, bai eta establezimenduenak ere (-% 4,4). Hotelaren kategoria guztietan gertatu dira murrizketak, hiriburuan (gutxixeago) nahiz Arabako Errioxan eta lurraldeko gainerako inguruetan, salbuespen bakarrarekin: Gasteizen 3 izarretako eta gehiagoko hoteletan soilik egin du gora oheen eskaintzak (% 2,6 u/u). Gipuzkoan eta Bizkaian, hiri inguruak hiria bera baino gehiago hazi dira (Bilboren kasuan, bereziki), eta tokien eskaintza osoak behera egin du bi probintzietako kostaldeetan nahiz barnealdean.

2.18 grafikoa Euskadi eta Espainia: ostatu-gauak hoteletan (1H13=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.19 grafikoa Hoteletako prezioen indizea (errealak*, 2008=100)



* Estatuko KPIren arabera deflektatua. 2018ren kasuan, lehen hiruhilekoari dagokio.
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta.

9: Eustatek hotelak eta pentsioak batera hartzen ditu kontuan. Ikusi: http://www.eustat.eus/bancopx/spanish/id_2284/indiceRR.html

Euskadiko lan-merkatuak bizkortzen jarraitu du, enplegua handitu da eta langabezia gutxitu, aktiboen murrizketak ere lagunduta

Euskadin, Gizarte Segurantzako afiliazioa % 2,1 hazi zen 2017an, aurreko urtean baino 0,1 p.p. gehiago, baina Espainiako multzo osoan baino 1,5 p.p. gutxiago. Batez beste, 18 mila afiliatu baino gehiago irabazi zituen eskualdeak. 2017an Espainiaren azpitik egotea, zerbitzu publikoetan ez beste sektore guztietan enplegua sortzeko erritmo motelagoaren ondorio izan da. 2018ko lehen lauhilekoko datuetan oinarrituta, urteko lehen erdian Espainiarekiko hazkunde-diferentziala murriztu egin daitekeela aurreikusten da, eskualdeko afiliazioa % 0,6 h/h arte handituko bailitzateke (UEEZ) urteko lehen seihilekoan, estatuko batezbestekora iritsi gabe, hala ere. Sektore publikoaren ekarpenak eusten dio nagusiki enpleguaren sorrerari, baina ekarpen garrantzitsua egiten dute baita ere manufaktura-industriak, jarduera profesionalak, merkataritzak, garraioak eta ibilgailuen konponketak (ikusi 2.2 koadroa).

Bestalde, eskualdeko lan-merkatuaren hobekuntza neurritsuagoa adierazten du Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI); batez beste, % 0,3ko (u/u) igoera izan du 2017an (3.000 enplegu), aurreko urtean baino 2,6 p.p. gutxiago, urtea ahul hasi ondoren. Sektoreka, BAIren eta afiliazioaren arabera, urteko enplegu-irabaziak manufaktura-industrian eta sektore publikoan gertatu ziren; hala ere, zerbitzu pribatuetan nolabaiteko murrizketa behatu zuen inkestak. Izan ere, soldatapeko langile publikoen hazkundea izan zen 2017ko enpleguaren igoeraren arrazoi nagusia. 2018ko lehenengo datuen arabera, lan-merkatuaren suspertze arina gertatu da, zerbitzuen enplegu publiko zein pribatuetan gertatutako hobekuntzaren ondorioz.

2.2 koadroa. Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkundeari egindako ekarpenak (h/h, %, UEEZ)


	Euskadi					Espainia				
	1S17	2S17	2017	1H18	2H18 (e)	1S17	2S17	2017	1H18	2H18 (e)
Nekazaritza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0
Erauzketa ind. eta energia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufakturak	0,1	0,1	0,3	0,1	0,1	0,1	0,1	0,3	0,1	0,1
Eraikuntza	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,1	0,1	0,2	0,1	0,0
Merk., garraioak eta konpon.	0,0	0,1	0,2	0,1	0,1	0,2	0,1	0,6	0,1	0,1
Ostataritza	0,1	0,0	0,2	0,0	0,0	0,1	0,0	0,5	0,1	0,1
Komun. finantzak eta higiez.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,2	0,1	0,1
Jarduera profesionalak	0,1	0,1	0,4	0,1	0,1	0,2	0,1	0,6	0,1	0,1
Zerbitzu Publikoak	0,2	0,1	0,8	0,2	0,2	0,2	0,2	0,5	0,2	0,2
Gizarte-zerb. eta arte jard.	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0
Gainerakoak (etxea barne)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	0,5	0,4	2,1	0,7	0,5	1,0	0,7	3,0	0,8	0,6

Seihilekoko datuak hiruhilekoen arteko batezbestekoak dira. (e) estimazioa da, apirilko datuetan oinarrituta. Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarrituta

Enpleguaren hobekuntza heterogeneoa izaten ari da eskualdean, bailaraz bailara egindako azterketan ikus daitekeenez. Afiliazioak azken urtean izandako bilakaera erakusten du 2.20 grafikokoak; Gipuzkoako zenbait bailarak eta Arabako erdialdeak eta iparraldeak erakutsi zuten dinamismo handiena. Gorbeialdetik harago (% 4,3 u/u, bailara edo irudian), % 3tik gorako hazkundea izateagatik nabarmendu dira Arabako Lautada (% 3,5 u/u, Gasteiz barne, Euskadiko afiliazioaren % 13 hartzen duena, b bailara mapan) eta Debabarrenko (g) eta Goierriko (n) industria-bailarak. Atalase horretatik gertu eta Euskadiko batezbestekoaren gainetik hazi zen Gipuzkoako ipar-ekialdea, Bidasoa Behea eta Donostialdea (% 2,9 u/u e bailara, eta % 2,5 u/u i bailara, hurrenez hurren); Euskadiko afiliazioaren bosten bat jasotzen dute azken horiek. Hala ere, Bizkaiak dinamismo neurritsuagoa erakutsi zuen jende gehien hartzen duen erdialdean, Bilbo Handian eta Durangaldean (% 1,9 eta % 1,7 u/u f eta j bailaretan, hurrenez hurren), eta ipar-ekialdean behera egin zuen, bai Gernika-Bermeon (m), bai Markina-Ondarroan (q). Lurralde historiko horretan, joan den urtean, Arratia-Nerbioi bailara txikia (d) soilik hazi zen Euskadiko batezbestekoaren gainetik.

Krisiaren hasieratik afiliazioak izan duen bilakaerak dinamismo txikiagoa adierazten du Bilbo Handian ere (ikusi 2.21 grafikoa), eta Donostialdeak, bien bitartean, krisi aurreko afiliazio maila gainditu du; bestalde, Arabako Lautada ere atalase horretara iritsi da, duela gutxi izandako azkartzeari esker. Aldiz, Euskadiko hiri-inguru populatuena, afiliazioaren % 41 hartzen duena, maila hura baino 4 p.p. beherago dago oraindik, eta gainerako udalerrien multzoaren maila soilik gainditzen du, afiliazioaren laurden bat hartzen duena (ikusi 2.21 grafikoa).


2.20 grafikoa. Euskadi: Gizarte Segurantzako afiliazioa, bailaraka (1H18, %, u/u)



- a Arabako Ibarrak
- b Arabako Lautada Arabako
- c Mendialdea
- d Arratia Nerbioi
- e Bidasoa Beherea
- f Bilbo Handia
- g Deba Beherea
- h Debagoiena
- i Donostialdea
- j Durangaldea
- k Enkarterri
- l Errioxa Arabarra
- m Gernika-Bermeo
- n Goierri
- o Gorbeia inguruak
- p Kantauri Arabarra
- q Markina-Ondarroa
- r Plentzia-Mungia
- s Tobsaldea
- t Urola Kostaldea


Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren eta Eustat-en datuetan oinarrituta

2.21 grafikoa Afiliazioa bailaraka (1H13=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren eta Eustaten datuetan oinarrituta

2.22 grafikoa BAI langabeak, egoera horretan daramaten denboraren arabera (milakotan)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


Euskadin, langabeziaren batez besteko tasa 1,3 p.p. murriztu zen iaz, eta langabeen batez besteko kopuruak % 11,3 egin zuen behera, baina biztanleria aktiboa ere % 1,1 u/u murriztu zen (estatuko batezbestekoa % 0,4koa izan zen). Beraz, aktibo (lanean edo lan bila) 6 mila pertsona gutxiago zeudela esan nahi du horrek, eta, hala, BAIk kalkulaturako batez besteko enpleguaren sorrera bikoizten du. Langabezia-tasa % 11,3koa izan zen, 115 mila lagun inguru. Horietatik, 2013tik gertatzen ari denez, % 40 baino gehiagok gutxienez 2 urte zeramatzen langabezian (% 38,3 Espainiaren kasuan); 2008an behatutako ratioa bikoizten du horrek, eta 50 mila lagun ingururi eragiten die. Bestalde, egoera horretan urtebetetik gora baino bi urte baino gutxiagoz zeudenen ehunekoa, batez beste, % 13,4ra murriztu zen 2017an, eta ehuneko txikiena da hori 2009. urteaz gozotik. 2.22 grafikoak erakusten duenez, ondoz ondoko laugarren urtez handitu da langabezian urtebete baino gutxiago daudenen ehunekoa: % 44 ingurukoa izan zen 1H18an, 48 mila pertsona ingurukoa. Modu berean, aldi baterako lanpostuen ehunekoa handitzen joan da Euskadin eta, urtarokotasun-eraginak zuzendu ondoren, aurtengo lehenengo hiruhilekoan % 26,5ekoa izan da, Espainiako tasa baino 0,5 p.p. beherago soilik.

Kupoen likidazioen baliabide osagarriek superabit handia bultzatu zuten 2017an

2017ko itxierako aurrerapen-informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzak hobekuntza handia izan zuen bere kontu publikoetan, urte hasieran aurreikusitakoaren oso gainetik. Euskadik eskualdeko BPGren % 1,5eko superabitarekin itxi zuen 2017. urtea, 2016an izandako % 0,6ko defizitaren aurrean (ikus 2.23 grafikoa). Hobekuntza hori autonomia-erkidegoak izandako diru-sarreraren bilakaera onaren ondorio izan da nagusiki, % 18, 1 u/u handitu baitziren, Espainiako Gobernuarekin adostutako Itun Ekonomikoa eguneratzearen ondoriozko baliabideek bultzatuta. Hitzarmen horren eragina alde batera uzten bada, Euskadik eskualdeko BPGren -% 0,1eko defizitarekin itxi zuen 2017a eta, kasu horretan ere, tartearekin gainditu zuen aurrekontuen egonkortasun-helburua, -% 0,6koa.

Testuinguru horretan, Euskadiko gobernuak diru-sarrera osagarriak baliatu zituen gastua handitzeko: 2012ko aparteko ordainsariaren azken zatia espero baino lehenago ordaindu zuen, eta inbertsioetara eta hezkuntzara zuzendutako aurrekontua handitu zuen. Hala ere, autonomia-erkidegoko gastuaren hazkundera 2017an % 2,5 u/u-koa izan zen, nahiko neurritsua.

2.23 grafikoa Eusko Jaurlaritza: finantzaketarako gaitasuna/beharra (urtez urte t hilabetera arte metatua, eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAFPen oinarrituta

BPGren hazkundeak eutsi egingo dio 2018an Euskadin

Euskal ekonomiaren hazkundeak aurten % 3,1ean eutsiko diola aurreikusten da eta, datorren urtean, hazkunde-erritmoa % 2,8ra jaitsiko dela. Bi urte horietan 30 mila lanpostu sortzeko aukera ekarriko luke horrek eta urteko batez besteko langabezia-tasa murriztu egingo litzateke (2,5 p.p.), 2019. urtearen amaieran % 8,8ra iritsi arte. Aurreikuspen horiek betetzen badira, Euskadiko biztanleko BPGren aurrerapena termino konstanteetan (+% 3,1) Espainiako batezbestekoaren gainetik kokatuko litzateke 2018-2019 biurtekoan (ikusi 2.24 grafikoa). Beraz, 2019aren amaieran, krisi aurreko biztanleko BPGren maila gaindituko du Euskadik (10 p.p.), eta maila absolutua ere antzeko neurrian gaindituko du; langabezia-tasa, berriz, ez da oraindik krisi aurreko mailara iritsiko eta, enplegua, 2008ko mailatik 7,4 p.p.-ra kokatuko da (ikusi 2.33 grafikoa, atal honen bukaeran.)


Hainbat faktore leudeke eskualdearen portaera horren oinarrian: kanpora begira, munduko eta Europako agertokiak hobetzea lagungarri izango da ondasunen esportazioak suspertzen jarraitzeko, 2017an hasitako bidetik. Ziurgabetasuna sortzen duten zenbait egoera izan arren (*brexita* eta Estatu Batuetako kanbio-politika eta kanpo-merkataritzako politikak, nahiz duela gutxi iragarritako muga-zergekin lotutako neurriak, edo Ekialde Erdiko edo Argentinako tentsioak), beste batzuk arindu egin dira, Europako ziurgabetasun geopolitikoa, adibidez, azken urtean bizi izandako hauteskunde-egutegi trinkoaren ondoren. Hala, kanpo-sektoreak munduko eskariaren bultzadari probetxu ateratzen jarraitu beharko lioke.

Barne-eskariari dagokionez, diru-baldintza bigunei eutsi zaienez, kontsumo pribatuak eta inbertsioak gora egiten jarraituko dute. Hala ere, pilatutako eskaria ahitzen ari dela, petrolioaren prezioak azken aldi gora egin duela edo interes-tasek beherago jaisteko aukerarik ez dutela kontuan hartuta, familien gastua moteltzea espero da; baina ingurua nahiko aldekoa da, dena den.

Euskadik marjina du gastua handitzeko eta 2018ko zerga-betebeharrak betetzeko


2018ari begira, Eusko Jaurlaritzak onartutako aurrekontuek zerga-politikaren joera hedakorrari eusten diote. Alde batetik, autonomia-erkidegoko gobernuak diru-sarrerak % 4,5 u/u inguru handituko direla aurreikusi du, jardueraren suspertze nominalarekin bat eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostutako baliabideei esker. Bestalde, aurrekontuek gastu autonomikoen bultzada barnean hartzen dute, apur bat handiagoa soldatapekoen ordainketaren eta inbertsio gastuaren ataletan. Hala, bada, Euskadik ez luke arazorik izan behar 2018. urtea ixtean egonkortasun-helburua, eskualdeko BPGren -% 0,4, betetzeko. Are gehiago, aurreikusitako diru-sarrerei begiratuta, lehen mailako gastua BPGren ia bi puntu portzentual handituko balitz ere, defizit-xedea lortuko litzateke (ikusi 2.25 grafikoa).

2.24 grafikoa Biztanleko BPG 2017an, eta aurreikuspenpearen bilakaera (€ konstantetan)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.25 grafikoa Eusko Jaurlaritza: lehen mailako gastuaren doitzea (BPGren p.p.)



(a) Aurrerapena. (e) Estimazioa.
 (*) Egonkortasun-helburua lortzeko beharrezko doitzea (-% 0,4).
 Iturria: BBVA Research, MINHAFPen oinarrituta

Estatu Batuetako merkataritza-politika eta Kataluniaren inguruko ziurgabetasuna, arriskutsuak zenbait erkidegoren agertokirako

Ondasunen esportazioetan espero den aurrerapenean eta horiek bultzatzen dituzkeen ekipamendu-ondasunen arloko inbertsioaren hazkuntzean oinarrituta, BBVA Research-ek Euskadiko ekonomiaren hazkunde indartsua aurreikusten du 2019rako. **Hala ere, duela urtebeteko argitalpen honetan adierazitako kanpo-arriskuetako zenbait hor daude oraindik eta, beste batzuk, larriagotu egin dira.**

Agertokiaren kanpo-arriskuak argitalpen honen aurreko edizioan zehaztutako berak dira. Ziurgabetasuna nabari da, merkataritza globalaren susperraldi hasiberria mugatuko duten tentsio geopolitikoek edo neurri protekzionistek har dezaketen indarraren inguruan. Ildo horretan, oraindik ez dakigu zer irismen izango duten Estatu Batuetako kanpo-merkataritzaren politikan egindako aldaketek, ez eta *brexitaren* inguruko negoziatioek zer emaitza emango duten ere. Azken kasu horretan, *Zertan den Euskadi 2017*¹¹ aldizkarian adierazitakoaren ildotik, Espainiako gainerako eskualdeek baino lotura txikiagoa du Euskadik Erresuma Batuekiko. Modu berean, turismoaren sektorearen ahitzearekin lotutako arriskuak txikiagoak dira, sektore horrek eskualdeko ekonomian duen pisu erlatibo txikiagoaren, nahiz saturazio maila txikiagoaren, ondorioz. Hala ere, ondasun-ekoizpena nazioarteko merkatuetara zuzendu da gehiago eta horrek, berez, Euskadiko jardura bultzatzen duen arren, kontra jar daiteke, merkataritzaren arloko tentsioek gora egiten jarraitzen badute. 2.26 grafikoa ikus daitekeenez, Euskadiko burdinen, altzairuen eta aluminioen esportazioen pisuak eskualdeko BPGren % 0,4 gaintzen du eta, Espainiako gainerako erkidegoekin alderatuta, pisurik handiena dute Estatu Batuetako merkatura zuzendutako salmenta osoek.


Barneko arriskuen artean, ziurgabetasuna handitzearen ondorioek eragin dezakete gehien. Horrekin lotuta, joan den urteko azken zatian Kataluniako inguru politikoan behatutako tentsioaren igoerak Espainiako ekonomian eta autonomia-erkidegoetan izan duen eragina aztertu zuen BBVA Research-ek. Gaur egun jada antzematen da eragin hori, eta Estatuko BPGren hazkuntzea bi hamarren inguru murriz daiteke, bai 2018an eta bai 2019an. Katalunian, eragin hori handiagoa izango litzateke, eta hazkuntzea zazpi hamarren txikiagoa izan daiteke 2018an, eta hiru hamarren inguru murriz daiteke 2019an. 2017ko azken hiruhilekoan ez Kataluniako eta ez Espainiako

11: Hemen eskuragarri: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-pais-vasco-2017/>

BPGk moteltzearen sintoma garrantzitsurik erakutsi ez bazuten ere, horrek ez du esan nahi ondorioz izan ez denik, hein handian, ondasunen esportazioek espero baino portaera hobea izateak konpentsatu baitu moteltze hori¹².


2.27 grafikoa ikus daitezke ziurgabetasun horren ondorioz, Kataluniako ekonomian gertatutako moteltzeak, Euskadin eta gainerako autonomia-erkidegoetan izandako ondorioak; eta larriagoak lirateke Kataluniarekin merkataritza-harreman handiagoa dutenen kasuan¹³. Horregatik, **Kataluniako BPGk zazpi hamarreneko murrizketa izango balu ere, kutsatze-efektuak bi hamarren pasatxoko murrizketa ekar diezaioke Euskadiko BPGri 2018an** eta, beraz, beste autonomia-erkidego batzuetan baino arinagoak izango dira ondorioak. Dena den, zaila da arlo honetan zehaztasun handiz jokatzeko, handia baita BBVA Research-en estimazioa bezalakoetan ziurgabetasun maila. Alde horretatik, Euskadiko ekonomiaren adierazle nagusiek azken hilabeteetan izandako bilakaera aztertzen badugu eta, ziurgabetasun gabeko agertoki batekin alderatzen badugu, badirudi Kataluniako tentsio politikoak ez duela oraingoz ia eraginik izan Euskadin (ikusi 2.28 grafikoa).

2.26 grafikoa Eskualdeetatik AEBra zuzendutako esportazioak: guztira, eta aluminioa, burdina eta altzairua (2017, eskualdeko BPGren p.p.)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en eta INEn oinarrituta

2.27 grafikoa Kataluniarekin lotutako ziurgabetasunak autonomia-erkidegoetako BPGren hazkundera izan dezakeen eragina (BPGren p.p.)



Iturria: BBVA Research

Estimazio-ariketa egin eta hilabete batzuk igaro ondoren, badirudi eskualdeetako ekonomien bilakaera aurreikusitakoaren nahiko antzekoa izan dela. Hala, bada, Kataluniaren kasuan, eta Kataluniako Estatistika Institutuaren datuen arabera, autonomia-erkidego horren barne-eskaria gelditu egin zen 2017ko laugarren hiruhilekoan¹⁴: etxeetako kontsumoan ez zen inolako hazkunderik gertatu, eta ekipamendu-ondasunen arloko inbertsioek, eta egoiliarak ez diren kontsumoak, behera egin zuten. Horren guztiaren ondorioz, merkataritzaren, garraioen eta ostalaritzaren sektoreetako jardura ere murriztu egin zen. Aitzitik, esportazioen portaera onak emandako ezustekoaren eta, barne-eskari txikiak eragindako inportazioen beherakadaren ondorioz, handiagoa izan zen kanpo-arloak hazkundera egindako ekarpena; Kataluniako ekonomiak % 0,8 h/h-ko igoerari (UEEZ) eusteko adina, aurreko hiru hiruhilekoetan izandakoa baino hamarren bat txikiagoa soilik.


12: Kataluniako ekonomiaren gaineko eraginari buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero, begiratu *Situació Catalunya*, 2018ko 1. seihilekoa: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-cataluna-primer-semester-2018/> eta *Observatorio Regional*, 2018ko 1. hiruhilekoa: <https://www.bbva.com/publicaciones/el-foco-del-crecimiento-continua-desplazandose-hacia-el-centro-peninsular-en-2019/>

13: Politika ekonomikoarekin lotutako ziurgabetasunak Kataluniako BPGren gainean izandako ondorioak eta Kataluniako ekonomiaren moteltzeak gainerako autonomia-erkidegoetan izandako eragina kalkulatzeko erabilitako ereduari buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero, begiratu BBVA Research-en *Observatorio Regional*, laugarren hiruhilekoa, eranskin metodologikoa: <https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/11/Observatorio-Regional-4T17.pdf>

14: Ikusi hemen IDESCATek argitaratutako hiruhilekoko kontabilitateari buruzko informazioa: <https://www.idescat.cat/pub/?id=pibt&n=9144&lang=es>

2018ko lehen hilabeteetako datuetan oinarrituta, ondorio horiek sektore batzuetara eta lurralde batzuetara mugatu direla esan daiteke, eta ondasunen ekoizpenarekin lotutako jarduerari eutsi zaionez, beste autonomia-erkidego batzuen gaineko ondorioak txikiagoak izan dira. Gainera, espainiarrei dagokien turismoa beste autonomia-erkidego batzuetara zuzendu da. Azkenik, lan-merkatuak erresistentzia handia erakusten jarraitu du. Kataluniako barne-eskariaren erorketan esperotako zuzenketa gertatu zen arren, kanpo-eskariaren hobekuntzak orekatu zuen hein batean. Euskadin, kontsumo-adierazleek (matrikulazioak bereziki, eta, hein txikiagoan, xehekako salmentak), turismoaren sektoreak (ostatu-gauak) nahiz industria-ekoizpenaren indizeak espero baino emaitza apur bat hobekak izan zituzten azarotik aurrera.

2.28 grafikoa Espainia, Katalunia eta Euskadi: behatutako datuak eta aurreikuspenak, politika ekonomikoaren ondoriozko ziurgabetasunik gabeko agertokian (Datu gordinak, pp)*




* Hilez hileko aldea behatutako datuaren eta aurreikusitakoaren artean, 2017ko irailera arteko informazioarekin. Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzari, INEn, Datacomex-en eta DGTn oinarrituta

Aurreikuspenen arabera, 30 mila lanpostu inguru sortuko dira

Adierazitako agertokia gauzatuz gero, 30 mila lanpostu berri inguru sortuko lirateke Euskadin. Okupazioan hobekuntza gertatu arren, ez da oraindik berreskuratu krisi aurreko maila enpleguan, baina langabezia-tasa 1980az geroztiko batezbesteko historikoaren azpitik dago jada. 2019. urtearen amaieran, langabezia-tasa krisi aurreko minimoetara hurbilduko dela aurreikusten da (ikusi 2.29 grafikoa). Beraz, langabezia maila frikzionalera hurbilduko litzateke, eta soldatak igotzeko presioak ager daitezke Euskadin, giza kapitalaren murrizketen ondorioz.

2.29 grafikoa Egungo langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %) eta aurreikuspenak, maximo eta minimo historikoen aurrean




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta (BAI)

Aurrera begira, soldaten bilakaerak enpleguaren bultzada isla dezake. Beharbada, zenbait autonomia-erkidegotan, eta, zehazki, Euskadin, langabezia-tasak nabarmenki murriztu direnez, ordainsarien gaineko presioak nabaritzen hasiko dira, ekonomiak gora egin ahala lanpostu hutsak betetzeko ezintasuna sortuko baita (ikusi 2.30 grafikoa). Industriaren sektoreko edo zerbitzu turistikoetako zenbait lan garatzeko langile gaituen eskasiagatik gerta daiteke hori. Langabezian dauden pertsona askok ez badute enplegua sortzen duten enpresek eskatzen duten prestakuntzarik, ordainsariek gora egin dezakete horren ondorioz, eta lanpostu bat dutenen eta ez dutenen arteko desoreka areagotu egingo litzateke.

Hala ere, oraingoz, ez da ikusten lan-kostuek bilakaera berezirik izan dutenik krisiaren hasieratik. Unitateko lan-kostu nominalen (ULK¹⁵) bilakaera aztertuz gero, 2000-2009 aldian, ikus daiteke lan-kostu horiek % 38,2 handitu zirela Euskadin, Espainian baino 2,6 p.p. gutxiago. Haatik, epealdi horretan bertan, lanorduen kopurua % 10,3 handitu zen soilik, Espainian baino 7,2 p.p. gutxiago. 2009-2016 epealdian, hala ere, aldeak ez ziren hain handiak izan: % 6,6ko eta % 6,1eko murrizketak unitateko lan-kostu nominaletan eta lanordu guztietan Espainian behatutakoak baino 0,7 p.p. eta 1,0 p.p. txikiagoak dira soilik, hurrenez hurren (ikusi 2.31 grafikoa). Soldaten igoerekin batera ekoizpenetan irabaziak gertatzen diren heinean, enpresetako lehiakortasuna ez da kaltetuko.


15: Lan-kostuen bilakaera neurtzen du, produktu errealaren unitateko.

2.30 grafikoa Langabezia eta bete gabeko lanpostuak (2017, %, 4 hiruilekoen batezbestekoa)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.31 grafikoa Euskadi eta Espainia: unitateko lan-kostuen (ULK) aldakuntza eta lanorduen kopurua (2000. urtea=100, p.p. nominalak)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Hala ere, Euskadiko ekonomiak oraindik berekin dituen desorekak murrizten jarraitu beharrak nahitaezkoa egiten du produktibitatearen hazkundea indartuko duten erreforma berriak aintzat hartzea, aldi berean enpleguari eutsiz eta munduarekiko gehiegizko zorpetzea taxuz zuzenduz. Bereziki dira interesgarri, zeregin horretan, lan-merkatua hobetzera (langabezia-tasa murriztera, gazteena eta iraupen luzekoa batik bat, aldi bateko lanen tasa murriztera edota jarduera-tasa handitzera), giza kapitala suspertzera eta teknologia berriak geureganatzera zuzendutako neurriek.

2.32 grafikoa Euskadiko produktibitateak eta biztanleko BPGk 2010-2015 bosturtekoan izandako bilakaera Europako erreferentziatzko 30 eskualdeek izandakoarekin konparatzen du, horiek bainu antz gehien egiturazko irizpideei dagokienez¹⁶. Hiru azpitalde bereizi daitezke: lehenengoan, Espainiako eta Italiako hainbat eskualde leudeke eta Frantziako bakarra, Pays de la Loire. Horiek alderatuta, produktibitatearen bilakaera egokia izan du Euskadik eta, biztanleko BPGren hazkundeari dagokionez, tarteko egoera du. Bigarren azpitaldeko eskualde gehienak Alemaniakoak dira, eta badira Austriako bi (Steiermark eta Niederösterreich) eta Suediako beste bi ere (Västsverige eta Östra-Mellansverige). Euskadik horiekiko duen kokapen erlatiboa tartekoa da produktibitateari dagokionez, baina biztanleko BPGren aurrerapena handiagoa izan da haietan aldi horretan. Azkenik, *peer* eskualdeen edo eskualde konparagarrien hirugarren azpitaldea Britainia Handiko sei eskualdek osatzen dute, eta haien bilakaera bi adierazleetan Euskadikoa baino askoz ere positiboagoa izan da. Horrekin guztiarekin batera, kontuan izan behar da, Gaztela eta Leonen, Aragoi eta Alemaniako hiru eskualderen (Brandenburg, Nordheim-Westfalen eta Niedersachsen) kasuan izan ezik –horietan biztanleriaren murrizketa Euskadirena (-% 0,7) baino handiagoa izan baizen –, eskualde konparagarriak dinamikoagoak izan zirela demografikoki. Suediako bi eskualdeen kasuan, eta Lonbardia eta Pays de la Loire eskualdeen kasuan, biztanleriaren hazkundea % 4tik gorakoa izan zen.


16: EBK S3ren (Smart Specialization Platform) esparruan garatutako benchmarksak hautatzeko metodologiari dagokionez, ikusi: <http://s3platform.jrc.ec.europa.eu/regional-benchmarking>

2.32 grafikoa Produktibitatearen eta biztanleko BPGren bilakaera konparagarri diren Europako eskualdeetan (2010-2015)



Iturria: BBVA Research, Europako Batzordean eta Eurostaten oinarrituta

2.33 grafikoa BPG, okupazioa, langabezia-tasa, biztanleria eta biztanleko BPG. 2017ko maila eta 2018-2019ko aldaketa (krisi aurreko maila=100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2018ko lehen hiruhilekoa¹⁷

2018ko lehen hiruhilekoari dagokion Jarduera Ekonomikoari buruzko Inkestaren (EAE-BBVA) emaitzak bat datoz hazkunde indartsuari eusten dion Euskadiko ekonomiarekin. Halaber, urteko bigarren hiruhilekoari begira ere, aurreikuspen baikorrek hobera egin dute. Emaitza horiek, funtsean, aurreko hiruhilekoan behatutakoen oso antzekoak dira, eta 2017ko lehen hiruhilekokoan antzekoak baita ere: hiruhileko honetako egoerari buruzko ikuspegia apur bat okerragoa da, baina aurreikuspenek hobera egiten dute hurrengo hiruhilekoari begira. Espainiak izan duen bilakaera ere antzekoa izan da, hirugarren hiruhilekoan egindako inkestaren datuek okerrera egin ondoren, ziurrenik ziurgabetasun geopolitikoaren ondorioz, Kataluniarekin lotuta, besteak beste.

Hiruhileko honetako jarduerari buruzko ikuspegian, inkestari erantzun diotenen laurden batek jarduerak gora egin duela pentsatzen du, eta hamarretik batek baino gutxiagok uste du behera egin duela. Beraz, erantzunen saldo garbien emaitzak positiboak izan dira ondoz ondoko azken zazpi hiruhilekoetan, iazko hirugarren hiruhilekoan murrizketa gertatu arren (ikus R1.1 grafikoa). Hala, autonomia-erkidegoan inkestari erantzun diotenen iritziz, hazkundeak gorantz jarraitzen du, eta iritzi horri eutsi diote ia guztiek hiruhileko honetan ere.

Espektatiben emaitzek ikuspegi positiboagoa erakusten dute, inkestari erantzun dioten hamar lagunetatik lauk uste baitu jarduerak hobera egingo duela, eta ez da kontrako erantzunik egon ia. Hala, bada, saldo garbia % 38koa da, 4H17koa eta 1H17koa baino 6-7 p.p. handiagoa; bat dator datu hori BBVA Research-ek egindako aurreikuspenekin: hazkundera areagotu egingo da aurtengo lehen seihilekoan, iazko bigarren seihilekoarekin alderatuta.

Duela urtebete eta aurreko hiruhilekoan gertatutakoaren ildotik, lehen sektoreko inbertsio-adierazleak soilik erakusten du erantzunen saldo negatiboa hiruhilekoan. Stock mailen, salmenten eta zerbitzuetako enpleguaren adierazleek dute saldo positibo txikiena (ikus R.1.1 koadroa). Eraikuntza berrietako inbertsio-adierazleak izandako gorakadaren kasuan izan ezik (12 p.p. hobetu da aurreko hiruhilekoarekiko, eta 24 p.p. duela urtebetekoarekiko), erantzunak aurreko hiruhilekokoan antzekoak dira, eta duela urtebete emandakoen antzekoak.


Inbertsioari dagokionez, eraikuntza berrien kasuan izan ezik, inkestari erantzun dioten hamar lagunetatik zortzik egonkor ikusten dute. Ez dago ia erantzun negatiborik, lehen sektorean ez bada. Industria-sektoreari buruzko ikuspegia positiboa izan da ekoizpenaren, inbertsioaren nahiz enpleguaren arloetan, % 20 inguruko saldo garbiekin; bestalde, zerbitzuen sektorean, inbertsioari buruzko ikuspegia enpleguari buruzkoa baino positiboagoa da.

Lan-merkatuari dagokionez, aztertutako sektore guztiek aurreko hiruhilekoan izandakoen antzeko saldo positiboari eutsi diote, baina ez dute hobera egin; duela urtebeteko saldoak ere antzekoak ziren.

Kanpo-sektorearen adierazleen kasuan, esportazioek joera positiboari eutsi diote ondoz ondoko 21 hiruhilekotan, baina saldo garbia (% 17) azken bost urteetako txikiena da. Bere aldetik, turismoaren emaitzak positiboak izan dira ondoz ondoko 20 hiruhilekotan. 2018ko lehen hiruhilekoko saldo garbia (% 41) azken hiru inkestetako erregistro okerrera da, baina kontuan izan behar dugu datu gordinak direla, eta, beraz, urtarokotasuna jasotzen dutela.


17: 2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Inkesta hiru hilean behin egiten da, BBVAko eskualdeko bulegoen sareko enplegatuen artean. Inkestari buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi: Situación España, Recuadro 1, Encuesta BBVA de Actividad Económica. Una herramienta de seguimiento temprano del pulso de la economía. Situación España, 2º trimestre de 2014, hemen: <https://www.bbvarresearch.com/public-compuesta/situacion-espana/>

R.1 grafikoa Euskadi: jarduera ekonomikoaren bilakaera eta espektatibak. Muturreko erantzunen saldoak (%)



Iturria: BBVA

R.2 grafikoa Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Euskadin. Erantzunen saldoak (%). Aukeratutako aldagaiak



Iturria: BBVA

R.1 koadroa. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Euskadin. Eraitza orokorrak (%)

	2018ko 1. hiruhilekoa				2017ko 4. hiruhilekoa				2017ko 1. hiruhilekoa			
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*
Jarduera Ekonomikoa	26	66	8	18	26	68	6	20	30	62	8	22
Hurrengo hiruhilekorako aureikuspena	39	59	1	38	32	68	0	32	34	63	3	31
Industria-ekoizpena	24	72	4	20	27	67	6	21	24	71	5	19
Eskari-zorroa	26	68	5	21	27	67	6	21	28	64	8	20
Stock maila	13	83	4	9	9	87	5	4	10	87	3	7
Lehen sektoreko inbertsioa	6	83	11	-4	4	86	10	-6	5	89	6	-2
Industriako inbertsioa	17	83	0	17	25	72	3	22	22	74	3	19
Zerbitzuetako inbertsioa	24	71	5	19	28	65	8	20	19	74	7	12
Eraikuntza berriak	49	48	3	47	38	58	4	34	29	65	6	23
Industriako enplegua	23	77	0	23	30	66	4	26	23	74	3	20
Zerbitzuetako enplegua	17	77	5	12	25	70	5	20	20	71	9	11
Eraikuntzako enplegua	24	69	7	17	23	73	4	19	20	79	1	19
Prezioak	24	75	1	22	21	74	5	16	25	72	3	22
Salmentak	20	71	9	11	28	62	10	18	24	65	11	13
Turismoa	45	51	4	41	45	51	4	41	38	60	2	36
Esportazioak	18	80	1	17	24	76	0	24	24	72	4	20

* Muturreko erantzunen saldoa.
Iturria: BBVA Research

3. Espainiako biztanleriaren lurralde-dinamika: 1950-2016

Ángel de la Fuente¹⁸ - FEDEA eta Instituto de Análisis Económico (CSIC). 2018ko apirila.

Sarrera

Espainiako biztanleriak 1950etik gaur egun arte izandako bilakaera aztertu da artikulu honetan, eta, horretarako, RegData datu-basea erabili da, de la Fuente (2017) lanean deskribatutakoa. Sarrera honen ondoren, 2. atalean, faktore begetatiboek eta migrazio-faktoreek Espainiako biztanleria osoaren bilakaeran eta zahartze-prozesuan izandako eragina aztertu da. 3. atalean, biztanleriaren lurralde-banaketa dinamikaz aztertu da, estatuko eskualde jakin batzuetan kontzentratzeko joera izan baitu. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua aztertu da.

Biztanleria agregatuaren bilakaera


1955etik 2016ra bitartean, Espainiako biztanleria 28,2 milioi biztanletik 46,5 milioi biztanlera handitu zen; hau da, % 65eko hazkunde metatua esan nahi du horrek, edo % 0,77ko batez besteko hazkunde-tasa urteko. 3.1 grafikoan ikus daitekeen moduan, hazkunde hori ez da erritmo uniformean gertatu. 70eko hamarkadaren erdialdera arte, Espainiako biztanleria urteko % 1eko erritmoan hazi zen, migrazio-saldo garbia negatiboa izan arren. 1975 eta 1990 artean, emigrazioa murriztu arren, biztanleriaren hazkundeak behera egin zuen, garai horretan jaiotza-tasak izandako eroriko handiaren ondorioz, funtsean (ikus 3.1 grafikoaren b panela). Ondoren, biztanleriaren hazkunde handia gertatu zen, mende honetako lehenengo urteetan, bereziki, urte gutxi batzuetan atzerritik milioika etorkin iritsi baitziren; bien bitartean, bertako biztanleriak geldirik jarraitzen zuen. Krisia iritsi zenean, hala ere, joera hori eten egin zen, eta alderantzizko joera ere ikusi da azken urteetan: biztanleriaren hazkunde-tasa zero azpitik egon da 2012tik 2014ra bitartean.

Jaiotza-tasa txikitzearen eta bizi-itxaropena handitzearen ondorioz, zahartze-prozesu batean murgilduta dago Espainiako biztanleria azken hamarkadetan. Prozesu hori modu esanguratsuan azkartu zen 70eko hamarkadan, 3.2 grafikoan ikus daitekeenez: adineko pertsonen pisuaren bilakaera (gorantz) eta gazteen pisuaren bilakaera (beherantz). Grafikoan ikus daitekeen moduan, adineko pertsonen pisu-handitzea eten egingo da aldi batez mende honetako lehen hamarkadan izandako immigrazio-fluxu handiko urteetan, baina berriro indartuko da krisia iristean.


18: Pep Ruizen aipamen eta iradokizunak eskertzen ditut.

3.1 grafikoa Espainiako biztanleriaren urteko hazkunde-tasa eta osagaiak (milakotan)

a. Guztira, eta osagai naturala eta migrazioari dagokiona




b. Hazkunde naturalaren tasaren osagaiak: jaiotzak eta heriotzak, biztanleria osoaren %-tan



Iturria: neuk egina, RegData Dem datu-baseko biztanleriaren eta barneko nahiz kanpoko migrazioen datuetan oinarrituta (de la Fuente, 2017)

Iturria: neuk egina, RegData Dem datu-baseko biztanleriaren eta barneko nahiz kanpoko migrazioen datuetan oinarrituta (de la Fuente, 2017)

3.2 grafikoa Espainiako biztanleriaren banaketaren bilakaera, adinaren arabera. Adin-tarteek guztizkoan duten pisua (milako hainbeste urtean)



Iturria: de la Fuente, A. (2017)


Migrazio-fluxu handiak

Hamarkada hauetan, Espainiak migrazio-joera handiak jasan izan ditu, barnekoak nahiz kanpokoak, eta, ikusi dugunez, funtzio garrantzitsua bete dute biztanleriaren bilakaeran eta, are gehiago, lurraldeko kokapen-ereduan. 3.3 grafikoa migrazio-intentsitate garbiaren eta horren barneko (eskualdeen artekoa) eta kanpoko osagaien bilakaera jasotzen du. Urtebetean (uztailaren 1etik uztailaren 1era) migrazioaren ondorioz gertatzen diren lekualdaketa garbien kopuru osoa jasotzen du adierazleak, eta herrialdeko urte hasierako biztanleriarekiko zatiki gisa adierazi da. Migrazioaren ondoriozko lekualdaketen kopurua barneko eta kanpoko lekualdaketen batura moduan kalkulatzen da. Kanpoko lekualdaketak aldi bakoitzean neurtzen dira, eta Espainiako migrazio-saldoa garbiaren balio absolutua dira. Barneko lekualdaketak honela kalkulatzen dira: i) eskualdeetako migrazio-saldo garbien balio absolutuak batuz; ii) kopuru osotik kanpoko lekualdaketak kenduz; iii) emaitza zati bi eginez, barneko

lekualdaketa bakoitza bi aldiz zenbatzen dela kontuan izateko (jatorrizko eskualdean eta helmugakoan). Prozedura gutxi gorabeherakoa da, eta barneko migrazioen intentsitatea gutxiesteko joera du, fluxu garbiak soilik hartzen baititu kontuan.

Migrazio-intentsitate garbiak beheranzko joera erakusten du aldiaren zati handi batean, baina mende honetako lehenengo urteetan, berriz, gorakada handia gertatu zen, krisiaren hasierarekin amaitu zena. Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, aldagai hori milako 8ren inguruko balioetara iritsiko da urteko; hau da, biztanleriaren mugimendu garbi nahiko handia gertatuko da (300.000 lekualdaketa garbi inguru urtean), eta tasa hori bikoiztu egingo da mende honetako lehenengo bosturtekoan. Aldi osoko kopuruak batuta, lekualdaketa garbien kopuru osoa 13 milioitik gorakoa da; beraz, Espainiako biztanleriaren zati handi batek aztertzen ari garen aldian bizitoki zuen eskualdea (edo herrialdea) aldatu zuela esan nahi du horrek. Kopuru horrek, gainera, migrazioaren ondoriozko lekualdaketen kopuru erreala gutxiesten du nabarmenki, biztanleriaren fluxu garbiak soilik atzematen baititu (hau da, etorkinen eta emigratzaileen kopuru osoen arteko aldea), eta beste eskualde batzuetatik, atzeritik edo eskualde horietara edo atzerrira egiten diren lekualdaketak soilik izaten baititu kontuan; beraz, ez ditu kontuan izaten eskualde jakin baten barnean gertatzen direnak.

3.3 grafikoa migrazio-intentsitate garbia (milako hainbeste urtean)



Iturria: de la Fuente, A. (2017)


Migrazio-intentsitate garbiaren bi osagaiak oso portaera desberdina dute. Barneko osagaiak, eskualdeen arteko migrazio-fluxuen intentsitatea neurtzen duenak, beheranzko joera argia erakusten du, eta, 1980tik aurrera, milako batetik beherako balioetara jaisten da. Kanpoko migrazio-intentsitateak, bestalde, oso azkar egiten du behera aldiaren lehenengo zatian (Espainiak migrazio-saldo negatiboa zuenean), oso balio baxuetan eusten dio aldiaren erdiko urteetan, eta gorantz egiten du 1985etik aurrera, Espainiako migrazio-saldoaren zeinu-aldaketarekin bat etorritik. Azkenik, oso balio altuetara iritsiko da mende honetako lehenengo urteetan, eta bat-batean jaitsiko da krisiaren hasieran.

Biztanleriaren lurralde-banaketa

Atal honetan, Espainiako biztanleriaren eskualdeen arabera banaketaren bilakaera aztertuta da, joan den mendearan erdialdetik hasita. Aztergaia antolatzen laguntzeko, datuetara egindako lehenengo hurbilketa batean, 17 autonomia-erkidegoak bost makroeskuale handitan bildu ditut, irizpide ekonomiko eta geografikoen konbinazio baten arabera. Tradizio eta pisu industrial handieneko hiru erkidego handiak (Katalunia, EAE eta Madril) eskualde ekonomiko bakarrean biltzen dira (gune industrial handiak), eta gauza bera egin dut bi uharte-eskualdeekin,


turismoaren mendeko ekonomiak dituztenekin. Gainerako eskualdeak irizpide geografikoen arabera multzokatu ditut, Hegoaldea (Andaluzia, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Murtzia eta Ceuta eta Melilla), Ipar-mendebaldea (Galizia, Asturias, Kantabria eta Gaztela eta Leon) eta Ebroko harana (Errioxa, Aragoi eta Nafarroari Valentziako Erkidegoa erantsita) bereiziz.

3.4 grafikoa pisua Espainiako biztanlerian (%)



Iturria: de la Fuente (2017)

3.5 grafikoa eskualdeen pisuak Espainiako biztanlerian (%)




Iturria: de la Fuente (2017)

3.4 grafikoa makroeskuale horietako bakoitzak Espainiako biztanlerian izan duen pisuaren bilakaera erakusten du. Eskualdeen profilak askotarikoak dira. 1950etik 1980ra bitartean, erkidego industrial handien pisua % 60 handituko da ia; horren aurrean, hegoaldeko eskualdeak hasierako pisuaren % 20 baino gehiago galduko du. 1980tik aurrera, hala ere, bi eskualde horien pisua egonkorra izango da, gutxi gorabehera. Bestalde, ipar-mendebaldeak pisua galduko du aldi osoan nahiko erritmo uniformearekin, eta uharteetako erkidegoek, berriz, pisua irabaziko dute. Aldi osoa kontuan hartuta, lehenengo eskualdeak hasierako pisuaren % 40 galduko du, eta bigarrenaren pisua, berriz, % 60 baino gehiago handituko da. Azkenik, Ebroko haranak eta Valentziak osatutako makroeskualeak nahiko iraunkor eutsiko dio azken hirurogeita hamar urteetan ia, baina egonkortasun horrek ondo bereizitako dinamikak ezkutatu ditu eskualdeak osatzen duten autonomia-erkidegoetan: Ebroko haranak pisua galduko du Valentziako Erkidegoaren aurrean.


3.5 grafikoa autonomia-erkidego bakoitzak Espainiako biztanleria osoan duen parte-hartzea erakusten du, 1950. urtetik 2016. urtera. 2016. urtean biztanleria gehien zuten lau eskualdeek (Andaluzia, Katalunia, Madril eta Valentzia) Espainiako biztanleriaren % 46,1 biltzen zuten 1950ean, eta % 58,5, berriz, 2016an. Biztanleriaren kontzentrazio maila, beraz, handitu egingo da nabarmenki, eta oso aldaketa esanguratsuak gertatuko dira baita ere eskualde horietako batzuen parte-hartzean. Madrilgo biztanleria osoaren pisua bikoiztu baino gehiago egin da aldiaren hasieratik amaierara, eta uharteetako eta Kataluniako biztanleriaren pisua % 40 handitu da gutxienez. Beste muturrean, Extremadurak, Galiziak eta bi Gaztelek hasierako pisuaren % 40 baino gehiago galdu dute, eta Aragoi eta Asturiasek, berriz, % 25 baino gehiago. Laburbilduz, Espainiako biztanleria Madril eta aldirietan (Mediterraneoaren itsasertzean eta artxipelagoetan, nagusiki) kontzentratu da gero eta gehiago, barneko (bi Gaztelak, Extremadura eta Aragoi) eta ipar-mendebaldeko eskualdeen bizkarretik.

3.6 grafikoa biztanleriaren hazkunde erlatiboaren tasak eta osagaiak, 1951tik 2016ra arteko batezbestekoa (milakotan)



Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.7 grafikoa immigrazio-saldo garbi metatua, 1950-2016, 2016ko biztanleria egoiliarren ehunekotan (%)



* dagokion aldiko etorkinen fluxu garbiak metatuz lortzen dira migrazio-saldo metatuak, heriotza-tasa kontuan hartu gabe.
Iturria: de la Fuente, A. (2017)

Eskualde bateko biztanleriaren hazkunde erlatiboaren tasa (hau da, tasa nazionalarekiko aldea) jaiotzen eta heriotzen arteko aldea islatzen duen osagai natural edo begetatibo baten eta migrazio-fluxuek biztanleriaren hazkundearen gain duten eragin garbia jasotzen duen beste osagai baten arteko batura moduan adieraz daiteke. 3.6 grafikoa deskonposatze horren emaitza erakusten du, Espainiako eskualdeen kasuan eta 1951tik 2016ra bitartean. Bi osagaiak zeinu bera izateko joera duten arren (etorkinak ugaltzeko adinean iritsi ohi dira, eta eskualde hartzaileetako jaiotza-tasa handitzen eta heriotza-tasa murrizten du horrek), migrazioarekin lotutako osagaiaren pisua erabakigarria izan da autonomia erkidegoen zati handi baten bilakaera demografikoan. Oro har, migrazio-fluxuak errenta maila handieneko eskualdeetara zuzendu dira, enplegua lortzeko aukera handienak eskaintzen dituztenetara.

Migrazio-fluxuen metaketak eragin handia izan du Espainiako biztanleriak eskualdeetan izandako banaketan. 3.7 grafikoa 1950etik 2016ra bitartean autonomia-erkidego bakoitzean metatutako migrazio-saldo garbiak erakusten ditu, hainbat hamarkadatan zatituta eta 2016ko biztanleriaren zatiki gisa adierazita. Termino absolutuetan, Kataluniak eta Madrilek hartu dituzte etorkin gehien, bi milioi eta erdi pertsona inguru, bai eta Valentziak ere, milioi eta erdi pertsona inguru. Beste muturrean, Gaztela eta Leonek milioi biztanle inguru galdu ditu emigrazioaren ondorioz; Andaluziak, Extremadurak eta Gaztela-Mantxak ere 650.000 biztanletik 830.000 biztanlera artean galdu dituzte. Termino erlatiboetan, Balear Uharteak, Kanariar Uharteak eta Euskal Autonomia Erkidegoa ere nabarmendu dira biztanleria hartu duten eskualdeen artean, eta Galizia, berriz, biztanleria galdu dutenen artean. Migrazio-saldo garbi metatuak biztanleria egoiliarren oso zatiki esanguratsua osatzen du zenbait eskualdetan. Esate baterako, Balearretako, Madrigo, Kataluniako eta Valentziako immigrazio-saldo garbiak biztanleria egoiliarren % 30 gainditu zuen 2016an; horren aurrean, bi Gaztelatako eta Extremadurako emigrazio-saldo garbiak gaur egungo biztanleriaren % 30 gainditzen du, eta Extremaduran, zehazki, % 65etik gorakoa da.

1950-1980 eta 1980-2016 aldietako migrazio-saldo metatuak konparatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua nabarmentzen da. Autonomia-erkidego hori aztertu den aldiaren lehenengo erdian termino erlatiboetan immigrazio-saldo handiena zuen bigarren eskualdea izatetik —Extremadurarekin batera— migrazio-saldo garbi negatiboa izan duten Espainiako bi eskualdeetako bat izatera pasatu da 1980tik 2016ra arteko aldiaren, hainbat hamarkadatan jasan duen terrorismoaren presioaren eta egoera politiko tirabiratsuaeren ondorioz, ziurrenik.


Kontrakoa gertatu zen Andaluzian, Gaztela-Mantxan, Murtzian eta Errioxan. Azken erkidego horiek nekazaritza-sektore garrantzitsua dute, eta atzerriko eskulanaren zati handi bat hartu zuten mende honetako lehenengo hamarkadan. Atzerritarren immigrazioa aldi horretan oso garrantzitsua izan da baita ere uhartedietan, Madrilan, Katalunian eta Valentzian.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1951. urtean 1,05 milioi biztanle izatetik 2016an 2,16 milioi biztanle izatera igaro da, aztertutako aldiaren lehenengo zatian gertatutako migrazio-fluxu handiaren ondorioz hein batean, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran 400.000 biztanle inguruko saldo garbi metatua izan baitzuen erkidegoak (ikus 3.8 grafikoa). Une horretatik aurrera, immigrazioak geldialdia izan zuen, aurreko atalean adierazitako arrazoiengatik, eta biztanleria osoak ere geldialdia izango du.


3.9 grafikoa EAEko biztanleriaren hazkunde-tasa Espainiako batezbestekoarekin, gehienekoarekin eta gutxienekoarekin konparatzen du. Grafikoa ikus daitekeenez, Espainiako batezbestekoaren oso gaitetik egon zen EAE aztertutako aldiaren lehenengo zatian, biztanleriaren hazkunde-tasari dagokionez. 80ko hamarkadatik aurrera, aldiz, egoera alderantzikatu egingo da, eta biztanleriaren hazkunde txikienetakoa izatera igaroko da.

3.8 grafikoa EAEko biztanleria osoaren eta migrazio-saldo metatuaren bilakaera (milioika pertsona)




Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.9 grafikoa biztanleriaren urteko hazkunde-tasa; EAE gainerako autonomia-erkidegoen aurrean (%)




Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.10 grafikoa EAE gainerako autonomia-erkidegoen aurrean, 0-15 urteko biztanleriak biztanleria osoaren gainean duen pisuari dagokionez (%)



Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.11 grafikoa EAE gainerako autonomia-erkidegoen aurrean, 65 urtetik gorako biztanleriak biztanleria osoaren gainean duen pisuari dagokionez (%)



Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.10 eta 3.11 grafikoetan, alderaketa bera egiten da, baina adinaren arabera pisua kontuan hartuta. Espainiako gainerako eskualdeetan bezalaxe, zahartze-prozesu azkarra ikus daiteke EAEn, 65 urtetik gorako biztanleen igoera nabarmena gertatuko baita aldi osoan, bai eta 0-15 urteko biztanleriaren beherakada ere 1980tik 2000ra bitartean. Joera komun horren barnean, aldiaren hasieran, EAeko biztanleria gaztetu egingo da apur bat Espainiakoarekin alderatuta, immigrazioaren eragin handiaren ondorioz; laurogeiko hamarkadatik aurrera, aldiz, zahartu egingo da erlatiboki.

Erreferentziak

de la Fuente, A. (2017). "Series largas de algunos agregados económicos y demográficos regionales: Actualización de RegData hasta 2016. (RegData y RegData Dem versión 5.0-2016)." FEDEA, Estudios sobre Economía Española, 2017-26 zk., Madril. <http://www.fedea.net/datos-economia-regional-y-urbana/a>

4. Taulak

4.1 koadroa Euskadiko ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

	2017		Batazbesteko hazkundea urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, ueez)		
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Azken hilabetea
Txikizkako salmentak	-0,3%	0,7%	2,1%	2,0%	0,7%	0,5%	mar-18
Matrikulazioak	7,7%	9,2%	12,2%	9,5%	-5,8%	-3,8%	mar-18
ZSJI (IASS)	4,4%	6,4%	8,3%	7,1%	0,6%	1,3%	ots-18
Bidaia-egoiliarak (1)	4,1%	1,5%	10,0%	5,8%	1,6%	-1,6%	mar-18
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	5,8%	1,2%	8,6%	6,2%	-1,7%	-2,7%	mar-18
IPI	4,4%	2,9%	0,4%	0,7%	1,5%	1,2%	mar-18
Etxebizitza bisatuak	25,7%	25,9%	-32,1%	19,2%	2,6%	17,3%	ots-18
Etxebizitza salerosketak	5,5%	14,6%	21,1%	19,9%	-0,3%	-0,6%	ots-18
Esportazio Errealak (2)	7,4%	7,4%	12,4%	2,3%	0,0%	0,7%	ots-18
Inportazioak	12,9%	5,3%	2,2%	3,4%	-5,2%	-0,1%	ots-18
Bidaia-Atzerritarak (3)	7,5%	6,0%	9,4%	4,1%	3,5%	-0,8%	mar-18
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	8,1%	3,8%	6,9%	1,9%	4,2%	-1,0%	mar-18
Afiliazioa SSn	2,1%	3,6%	2,2%	3,3%	0,2%	0,2%	api-18
Langabezia Erregistratua	-8,6%	-9,3%	-8,3%	-7,3%	-1,2%	-0,7%	api-18

(1) Espainiako Egoiliarak; (2) Ondasun esportazioak; (3) Espainiako egoiliarak ez direnak.
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

4.2 koadroa Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina (% urteko batez bestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
Estatu Batuak	2,9	1,5	2,3	2,8	2,8
EDB	2,0	1,8	2,5	2,3	1,8
Alemania	1,5	1,9	2,5	2,4	1,8
Frantzia	1,0	1,1	2,0	2,0	1,6
Italia	0,8	1,0	1,5	1,5	1,3
Espainia	3,4	3,3	3,1	2,9	2,5
Erresuma Batua	2,3	1,9	1,8	1,6	1,6
Latinoamerika *	-0,1	-1,0	1,2	1,4	2,5
Mexiko	3,3	2,9	2,0	2,0	2,2
Brasil	-3,5	-3,5	1,0	2,1	3,0
Eagles **	4,8	5,3	5,4	5,4	5,5
Turkia	6,1	3,2	7,4	4,5	4,3
Asia-Ozeano Barea	5,7	5,6	5,6	5,5	5,5
Japonia	1,4	0,9	1,7	1,0	1,2
Txina	6,9	6,7	6,9	6,3	6,0
Asia (Txina gabe)	4,6	4,7	4,5	4,7	5,0
Mundua	3,4	3,3	3,7	3,8	3,8

(a) Aurreikuspena.

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

** Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Thailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko apirilak 6.

Iturria: BBVA Research eta NDF

4.3 koadroa Inflazioa (%), urteko batezbestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
Estatu Batuak	0,1	1,3	2,1	2,7	2,7
EDB	0,0	0,2	1,5	1,5	1,6
Alemania	0,1	0,4	1,7	1,7	1,8
Frantzia	0,1	0,3	1,2	1,3	1,5
Italia	0,1	-0,1	1,3	1,3	1,6
Espainia	-0,5	-0,2	2,0	1,5	1,6
Erresuma Batua	0,1	0,6	2,7	2,5	1,9
Latinoamerika *	8,3	9,9	6,7	5,8	5,1
Mexiko	2,7	2,8	6,0	4,6	3,6
Brasil	9,0	8,8	3,5	3,3	4,5
Eagles **	5,0	4,4	4,1	4,3	4,2
Turkia	7,7	7,8	11,1	9,5	8,2
Asia-Ozeano Barea	2,2	2,3	2,0	2,6	2,9
Japonia	0,8	-0,1	0,5	1,0	1,5
Txina	1,4	2,0	1,6	2,3	2,5
Asia (Txina gabe)	2,8	2,6	2,4	2,9	3,3
Mundua	3,1	3,2	3,3	3,6	3,4

(a) Aurreikuspena.

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

** Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Tailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko apirilak 6.

Iturria: BBVA Research

4.4 koadroa Zor publikoaren 10 urterako interes tasa (%), urteko batezbestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
Estatu Batuak	2,13	1,84	2,33	2,96	3,45
Alemania	0,52	0,13	0,37	0,70	1,25

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko apirilak 6.

Iturria: BBVA Research

4.5 koadroa Aurreikuspen makroekonomikoak: kanbio tasak (Urteko batezbestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
EUR-USD	0,90	0,90	0,89	0,81	0,79
USD-EUR	1,11	1,11	1,13	1,24	1,27
USD-GBP	1,53	1,35	1,29	1,39	1,50
JPY-USD	121,07	108,82	112,20	111,64	113,75
CNY-USD	6,23	6,64	6,76	6,39	6,55

(a) Aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko apirilak 6.

Iturria: BBVA Research

4.6 koadroa Aurreikuspen makroekonomikoak: diru-politikaren interes-tasak (epeldi amaiera, %)

	2015	2016	2017	2018	2019
Estatu Batuak	0,50	0,75	1,50	2,50	3,00
EDB	0,05	0,00	0,00	0,00	0,50
Txina	4,35	4,35	4,35	4,35	4,10

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko apirilak 6.

Iturria: BBVA Research

4.6 koadroa Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2015	2016	2017	2018	2019
Jarduera					
BPG erreala	3,4	3,3	3,1	2,9	2,5
Kontsumo pribatua	3,0	2,9	2,4	2,2	1,9
Kontsumo publikoa	2,1	0,8	1,6	1,7	1,9
Kapital eraketa gordina	6,5	3,3	5,0	4,8	5,4
Ekipoak eta makineria	11,5	5,0	6,2	5,2	5,3
Eraikuntza	3,8	2,4	4,6	4,7	5,4
Etxebizitza	-1,0	4,4	8,3	6,1	5,6
Barne-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	3,9	2,5	2,8	2,6	2,6
Esportazioak	4,2	4,8	5,0	4,8	6,1
Inportazioak	5,9	2,7	4,7	4,2	6,9
Kanpo-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	-0,4	0,7	0,3	0,3	-0,1
BPG nominala	4,1	3,6	4,0	4,6	4,4
(Mila milioi euro)	1080,0	1118,5	1163,7	1217,5	1270,5
Lan merkatua					
Enplegua, BAI (EPA)	3,0	2,7	2,6	2,6	2,3
Langabezia tasa (biztanleria aktiboaren %)	22,1	19,6	17,2	15,3	13,7
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	3,2	3,0	2,8	2,6	2,2
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	0,3	0,3	0,2	0,4	0,3
Prezio eta kostuak					
KPI (urteko batez bestekoa)	-0,5	-0,2	2,0	1,5	1,6
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	0,0	1,0	1,1	1,5	1,8
BPGren deflatoea	0,6	0,3	1,0	1,6	1,8
Soldatapekoen ordainsaria	1,6	-0,3	0,1	1,1	2,1
Unitateko lan-kostua	1,4	-0,6	-0,1	0,8	1,8
Kanpo-sektorea					
Kontu korronte balantza (BPGren %)	1,1	1,9	1,7	1,5	1,1
Sektore publikoa (*)					
Zorra (BPGren %)	99,4	99,0	98,3	96,4	94,1
Herri Administrazioen saldoa (BPGren saldoa) (*)	-5,2	-4,3	-3,1	-2,4	-1,7
Etxeak					
Errenta nominal eskuragarria	2,2	2,0	2,0	4,3	5,3
Aurrezki tasa (errenta nominalaren %)	8,8	7,9	5,9	6,5	7,9

Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean.

(a) Aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko apirilak 6.

(*) Espainiako finantza erakundeek emaniko laguntzak kenduta.

Iturria: BBVA Research

5. Glosarioa

Siglas

- AAEE: Autonomia Erkidegoak
- BAI: Biztanleria Aktiboaren Inkesta
- BBVA – GAIN: BBVAren jarduera globalaren indizea
- BBVA: Banco Bilbao Vizcaya Argentaria
- BPG: Barne Produktu Gordina
- CEOE: Enpresaburuen Elkarteen Espainiako Konfederazioa
- CEPYME: Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioa
- CNTR: hiru hileroko kontabilitate nazionala
- CRE: Espainiako Eskualde Kontabilitatea
- EAE – BBVA:Jarduera Ekonomikoari buruz BBVA inkesta
- EAGLEs: garatzeko bidean dauden eta hazkunderako liderrak diren ekonomiak (Emerging and Growth-Leading Economies)
- EB: Europar Batasuna
- EBZ: Europako Banku Zentrala
- EDB: Ekonomia eta Diru Batasuna
- ENKA: enplegu eta negoziazio kolektiborako akordioa
- ETE: enpresa txiki eta ertainak
- Euribor: euroaren eremuko diru-merkatuko banku arteko erreferentzia-tasa (Euro interbank Offered Rate)
- FED: Erreserba Federala (Federal Reserve System)
- GAKN: Gastua Azken Kontsumo Nazionalan
- GK: Gobernu Kontseilua
- HEH: Hiri Eremu Handia
- HHAA: Herri Administrazioak
- INE: Estatistikako Institutu Nazionala
- KPI: Kontsumo Prezioen Indizea
- I.o.e.: lanaldi osoari dagokion enplegua
- LATAM: Latinoamerikari dagokion agregatua; honen barnean sartzen dira Argentina, Brasil,Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Venezuela
- MEYSS: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa
- MICA-BBVA: momentuko jarduera-adierazleen BBVA eredia
- MINHAFP: Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa
- SEB: beste sektore egoiliar batzuk
- UEEZ: urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta
- UTB: Urteko Tasa Baliokidea

Abreviaturas

- h/h: hiruhileko arteko aldaketa
- KT: konfiantza tarte
- mM: mila milioi
- mp: merktu preziotan
- op: oinarrizko puntuak
- p.p.: puntu portzentualak
- u/u: urtetik urterako aldaketa

LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektioztat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau Espainia eta Portugalgo Unitateak prestatu du

Espainia eta Portugalgo Ekonomialari Burua

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

Joseba Barandiaran

joseba.barandia@bbva.com

+34 94 487 67 39

Giancarlo Carta

giancarlo.cart@bbva.com

+34 673 69 41 73

Juan Ramón García

juanramon.gl@bbva.com

+34 91 374 33 39

Antonio Marín

antonio.marin.campos@bbva.com

+34 648 600 596

Virginia Pou

virginia.pou@bbva.com

+34 91 537 77 23

Pep Ruiz

ruiz.aguirre@bbva.com

+34 91 537 55 67

Angie Suárez

angie.suarez@bbva.com

+34 91 374 86 03

Camilo Andrés Ulloa

camiloandres.ulloa@bbva.com

+34 91 537 84 73

BBVA Research

Grupo BBVAko Ekonomialari Burua

Jorge Sicilia Serrano

Analisi Makroekonomikoa

Rafael Doménech

r.domenech@bbva.com

Ekonomia Digitala

Alejandro Neut

robertoalejandro.neut@bbva.com

Ekonomia Agertoki Globalak

Miguel Jiménez

mjimenezg@bbva.com

Finantza Merkatu Globalak

Sonsoles Castillo

s.castillo@bbva.com

Modelizazioa eta Epe Luzeko

Analisi Globala

Julián Cubero

juan.cubero@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas

oscar.delaspenas@bbva.com

Finantza Sistema eta

Erregulazioa

Santiago Fernández de Lis

sfernandezdelis@bbva.com

Erregulazio Digitala eta

Joerak

Álvaro Martín

alvaro.martin@bbva.com

Erregulazioa

Ana Rubio

arubiog@bbva.com

Finantza Sistemak

Olga Cerqueira

olga.gouveia@bbva.com

Espainia eta Portugal

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp

nathaniel.Karp@bbva.com

Mexiko

Carlos Serrano

carlos.serranoh@bbva.com

Turkia, Txina eta Big Data

Álvaro Ortiz

alvaro.ortiz@bbva.com

Turkia

Álvaro Ortiz

alvaro.ortiz@bbva.com

Asia

Le Xia

le.xia@bbva.com

Hego Amerika

Juan Manuel Ruiz

juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen

gsorensen@bbva.com

Txile

Jorge Selaive

jselaive@bbva.com

Kolonbia

Juana Téllez

juana.tellez@bbva.com

Peru

Hugo Perea

hperea@bbva.com

Venezuela

Julio Pineda

juliocesar.pineda@bbva.com

INTERESDUNAK ZUZENDU HONA:

BBVA Research: Calle Azul, 4. Edificio de la Vela - 4ª y 5ª plantas. 28050 Madrid (España). Tel.: +34 91 374 60 00 eta +34 91 537 70 00 / Fax: +34 91 374 30 25 - bbvaresearch@bbva.com www.bbvaresearch.com